



**2018KO XXXXXREN 00(E)KO 000/2018 DEKRETU-PROIEKTUA,
EUSKADIKO TOKI-ERAKUNDEETAN HIZKUNTZA OFIZIALEN
ERABILERA INSTITUZIONALA ETA ADMINISTRATIBOA
NORMALIZATZEARI BURUZKOA**

ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA.– XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– **Xedea**

2. artikulua.– **Aplikazio-eremu subjektiboa**

3. artikulua.– **Aplikazioko lurralde-eremua**

4. artikulua.– **Eskumen-titulua**

5. artikulua.– **Definizioak**

- «Normalizazio-planak»
- «Euskararen arnaguneak»
- «Hizkuntza-inpaktua»
- «Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa»
 - «Hizkuntza-ebaluazio estrategikoa»
 - «Hizkuntza-ebaluazioa»
- «Proiektuak eta planak»
 - «Plana»
 - «Proiektua»
- «Plan edo proiektu baten funtsezko aldaketa»
- «Irismeneko dokumentua»
- «Hizkuntza-azterketa»
- «Sustatzailea»
- «Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena»
- «Bilakaera-indizea»
 - «Biztanleriaren hazkunde-indizea»
 - «Bisitarien hazkunde-indizea»
 - «Euskararen proiektzio-indizea»
 - «Hauskortasun-indizea»
- «Toponimoa»
- «Alonimoa»
- «Elementu generikoa»
- «Erakunde geografikoa»
- «Izendegia»

6. artikulua.– **Printzipio gidariak**

7. artikulua.– **Araudi akademikoa eta hizkuntzaren erabilera ez-baztertzaila**

II. KAPITULUA. UDALERRIEN HIZKUNTZA-ARLOKO ESKUMENAK ETA ESKUMENAK GARATZEKO TRESNAK

- 8. artikulua.– **Aitorpena**
- 9. artikulua.– ***Ad intra* eskumen mota**
- 10. artikulua.– ***Ad extra* eskumen mota**
- 11. artikulua.– **Zehaztapenak eta tresnak**

III. KAPITULUA. HIZKUNTZAREN ERABILERA ERAKUNDEETAN ETA ADMINISTRAZIOAN

- 12. artikulua.– **Hizkuntza ofizialen erabileraren arauketa eta plangintza**
- 13. artikulua.– **Erabilerak eta jarduerak**
- 14. artikulua.– **Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa**
- 15. artikulua.– **Harremanetarako hizkuntza aukeratzeko eta diskriminaziorik ez egiteko eskubidea**
- 16. artikulua.– **Erakundeen irudia**

1. atala- Laneko hizkuntza

- 17. artikulua.– **Barneko jarduketak**
- 18. artikulua.– **Dokumentazioa**
- 19. artikulua.– **Organoen funtzionamendua**
- 20. artikulua.– **Hizkuntza-eskakizuna eta erabilera-irizpideak**
- 21. artikulua.– **Itzulpenen arrazionalizazioa**
- 22. artikulua.– **Bulegotikako materiala**
- 23. artikulua.– **Interneteko eta intraneteko sareak**

2. atala- Zerbitzuko hizkuntza

- 24. artikulua.– **Prozeduren eta administrazio-espedienteen hizkuntza**
- 25. artikulua.– **Komunikazioak eta jakinarazpenak**
- 26. artikulua.– **Komunikazio orokorrak**
- 27. artikulua.– **Herritarrei erantzutea**
- 28. artikulua.– **Eredu normalizatuak**
- 29. artikulua.– **Kopia elektronikoko autentikoak**
- 30. artikulua.– **Erregistro elektronikoko orokorra**
- 31. artikulua.– **Sistema automatizatuak**
- 32. artikulua.– **Publizitate aktiboa eta udal-informazioa jasotzeko eskubidea**
- 33. artikulua.– **Dibulgazio- eta informazio-argitalpenak**
- 34. artikulua.– **Eskritura publikoak**

35. artikulua.– **Jabari publikoaren erabilera komun berezia eta pribatiboa**

3. atala.– *Administrazio-kontratazioa eta lankidetzaren hitzarmenak*

36. artikulua.– **Kontratu publikoak**

37. artikulua.– **Hitzarmenak**

4. atala.– *Sustapen-lana*

38. artikulua.– **Diru-laguntzak**

IV. KAPITULUA. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK

39. artikulua.– **Jatorrizko dokumentuak euskaraz idaztea**

40. artikulua.– **Euskararen erabilera sustatzea harreman instituzionaletan**

41. artikulua.– **Komunikazio instituzionala**

V. KAPITULUA. UDAL-TOPONIMIA. BIDEETAKO ETA ZERBITZUETAKO SEINALEAK

42. artikulua.– **Eskumena**

43. artikulua.– **Printzipio gidariak**

44. artikulua.– **Prozeduraren oinarritzko arauak**

45. artikulua.– **Izen geografiko ofizialen izendegia**

46. artikulua.– **Seinaleak eta errotuluak jartzea**

VI. KAPITULUA. PLANEN ETA PROIEKTUEN HIZKUNTZA-INPAKTUA EBALUATZEA

1. atala. *Arau orokorrak eta gomendioak*

47. artikulua.– **Ebaluazioaren helburuak eta printzipioak**

48. artikulua.– **Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak**

49. artikulua.– **Ebaluazioa salbuesteko kasuak**

50. artikulua.– **Erantzukizunpeko adierazpenaren edo komunikazioaren mendeko proiektuak**

51. artikulua.– **Hizkuntza-ebaluazio estrategikoaren eta hizkuntza-ebaluazioaren arteko erlazioa**

2. atala. *Prozedura*

52. artikulua.– **Prozeduraren faseak**

53. artikulua.– **Hasiera**

54. artikulua.– **Irismeneko dokumentua**

55. artikulua.– **Hizkuntza-azterketa egitea**

56. artikulua.– **Informazioa jendaurrean jartzea eta pertsona interesdunei kontsulta egitea**

57. artikulua.– **Espedientea aztertzea**

58. artikulua.– **Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena**

VII. KAPITULUA. ERAKUNDEEN BULTZADA

59. artikulua.– **Sustapen-neurriak**

60. artikulua.– **Laguntza-zentroak**

61. artikulua.– **Plangintza-neurriak**

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Aurrekontuan duen eragina

Bigarrena: Lehenago erregistratu diren toponimoak

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra: Mailakako aplikazioa

AZKEN XEDAPENAK

Bakarra: Indarrean jartzea

ERANSKINAK

ZIOEN AZALPENA

Hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubide juridikoan abiapuntutzat hartzen da 1978ko Konstituzioaren 3. artikuluan ezarritakoa. Artikulu horretako lehen apartatuan gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen da. Horrez gain, artikulu bereko bigarren apartatuan ezartzen da autonomia-erkidegoetako hizkuntzak ere ofizialak izango direla, bakoitzari dagokion autonomia-erkidegoan. Ildo horretatik, Autonomia Estatutuen aldeko aipamena egiten du, hizkuntza horien ofizialtasun-estatusa zehazteko.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan aldarrikatzen da euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa eta ofiziala dela, eta pertsona guztiei aitortzen die euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea (6.1 artikuluan). Horrez gain, 6.2. apartatuan hauxe gaineratzen du: Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuta, hizkuntza bion erabilera bermatu, eta bion ofizialtasuna arautuko dutela; eta, horrekin batera, bi hizkuntzen ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak ere bideratu eta arautuko dituztela.

Autonomia Estatutua da hizkuntza-normalizazioa ordenatzen duen arau juridikoa. Horretan abiapuntutzat hartzen da, herritarrek hizkuntza modu normalizatuan erabiltzeko eskubideari dagokionez, hizkuntza bien ofizialtasun-egoerak ez direla guztiz berdinak, biak ofizialak izan arren. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideak bermatze aldera, normalizazioaren helburua hizkuntza bien erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sortzea da. Izan ere, berdintasun hori gaur egun ez da erabatekoa. Estatutuan ezarrita dagoen normalizazio orokorrerako agindu hori irizpide juridiko loteslea da, bai legegilearentzat bai botere publiko guztientzat.

Hizkuntza-normalizazioaren hirugarren zutabea Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna da (Espainiak 2001eko irailaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean egindako adierazpenaren bidez berretsi zuen). Horren harira, Konstituzio Auzitegiak espresuki deklaratu du: «“barneko ordenamendu juridiko”an sartu behar dela (Espainiako Konstituzioaren 96.1 artikulua), Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua ematen dion interpretazio-balioari kalterik egin gabe» (Konstituzio Auzitegiaren 166/2005 autoa, 5. oinarri juridikoa). Hori horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko euskararen, eta oro har, eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen erabilera sozialari buruz, 7.1 artikuluan botere publikoei agintzen die politikan, legegintzan eta praktikan honako helburu eta printzipio hauek oinarri hartzeko, hizkuntza bakoitzaren egoera zein den: «c) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak sustatzeko ekintza argiak egin beharra»; eta d) «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak bizitza publikoan eta pribatuan ahoz eta idatziz erabiltzea bultzatzea edota sustatzea». Halaber, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europar Gutunaren 7.2 artikuluan hauxe ezartzen da: «Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da joko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko

hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada».

Arriskuan dauden munduko hizkuntzei buruz UNESCOk egin duen atlasaren arabera, euskara bere lurraldean ere bada eremu urriko hizkuntza eta hizkuntza kaltebera, gaztelaniaren aldean (hots, beste hizkuntza ofizialarekin erkatuta). Horren ondorioz, euskara berreskuratzeko hizkuntza-politika egituratu behar da. Politika horrek euskararen erabileraren erabateko normaltasuna bultzatu behar du; herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta bermatu behar ditu; eta ziurtatu behar du euskara, beste hizkuntza ofizialarekin erkatuta, berdintasun- eta parekotasun-egoeran egotea.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan baimena ematen zaie botere publikoei euskara susta dezaten. Hizkuntza-normalizazioaren prozesua ebaluatuta, agerikoa da euskararen ezagutza areagotu egin dela; baina Euskadiko toki-erakundeetan, ordea, oraindik ere txikia da euskararen erabilera normalizatua.

Testuinguru horretan ezartzen da apirilaren 7ko 2/2016 Legea (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa). Izan ere, lege horrek euskara toki-erakundeetan sustatzeko neurriak hartzea ezartzen du. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak zioen azalpenean argi adierazten du legeak euskararen aldeko «apustu sendoa egiten duela euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde». Eta haxe ere azaltzen du: «toki-administrazioak etsenplu eta gidari izan behar duela euskara erabat berreskuratzearen arloan»; «euskal udalak bide-erakusle izan behar direla eginkizun horretan». Lege horrek lege aitzindaria izan nahi du botere publiko guztiek euskararen aldeko apustu sendoa egiteko prozesuan, euskararen «normalizazio desiratua eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz»; «... toki-agintarien jardunak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita»; «euskara faboratzeak bilatzen du, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europar Gutunaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan».

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen artikulua batean baino gehiagotan euskararen erabileraren normalizazioa aipatzen da; zehazki, nabarmentzekoak dira 6. eta 7. artikulua, toki-erakundeei hizkuntza-autonomia handiagoa ematen dietelako. Horrez gain, honako hauek ere kontuan hartu behar dira: 17. artikulua (hizkuntza-normalizazioari lotutako eskumen propioak); 25.9 artikulua (hautetsien hizkuntza-gaitasunen sustapena eta toki-erakundeek euskaraz funtzionatzeko ezartzen dituzten neurriak, batez ere, euskararen «arnasgune diren espazioetan»); 30.6 artikulua (toki-erakundeen bilkura publikoetan herritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzen duten eskubidea, eta itzulpenak); 43.1.h) artikulua (herritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea); 50.9. artikulua (euskara publizitate aktiboan sustatzea); 107. artikulua (Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako toki-erakundeekin lankidetzak hitzarmenak egitea, hizkuntza-loturak ezartzeko eta sendotzeko); eta 7. xedapen gehigarria (udal-

euskaltegiei buruzkoa). Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak berrikuntza garrantzitsuak ezartzen ditu toki-erakundeetan hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruz. Besteak beste, azpimarratzekoak dira honako hauek: euskararen erabilera normalizaturako oinarri berriak ezartzen ditu, pertsona guztiek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea betiere bermatuz; definitu eta zehaztu behar diren kategoria berriak zehazten ditu (adibidez, «euskararen arnaguneak»); eta ezinbestean garatu behar diren baliabide berriak abiarazi beharra jasotzen du, hala nola hizkuntzak planetan eta proiektuetan duen eragina ebaluatzeko sistema, hautetsiek euskara ikastea sustatuko duten neurriak eta kontratuetan hizkuntzari lotutako klausulak.

Dekretu hau Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea garatzeko ematen da, eta honako xede hauek ditu: euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzional eta administratiboak arautzea eta herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzea toki-administrazioekiko harremanetan. Dekretuak zazpi kapitulu ditu, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat.

Lehenengo kapituluan xedapen orokorrak bildu dira, eta bertan honako hauek zehazten dira: dekretua aplikatzeko lurralde-eremua eta eremu subjektiboa, hainbat kapitulutan erabiltzen diren zenbait termino, toki-erakundeek hizkuntza normalizatzeko prozesuan aplikatu ahal dituzten zenbait printzipio gidari (printzipio gidariak funtsezkoak dira, arau hau hizkuntza toki-erakundeetan erabiltzearen gaineko printzipioei eta irizpideei buruzkoa baita) eta toki-erakundeen hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideak. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak era zabalean osatzen du tokiko hizkuntza-autonomia, eta dekretu honen artikuluetan ikuspegi horri eutsi zaio. Izan ere, toki-erakundeak dira hizkuntza normalizatzeko prozesuaren benetako protagonistak, eta dekretua da lan hori egituratzeko tresna. Ikuspegi zabal horrek garapen zehatzak egiteko aukera ematen du, udalerrien hizkuntza- eta gizarte-egoeren arabera. Honako printzipio hauek ezartzen ditu arauak: euskararen erabilera normal eta orokorra; hizkuntza-eskubideen bermea; tokiko hizkuntza-autonomia; autoantolaketaren printzipioak; diskriminaziorik ezaren printzipioak; ekintza positiboaren printzipioa; hizkuntza propioaren alde argi jardun beharra eta efikaziaren, efizientziaren, proportzionaltasunaren eta plangintzaren printzipioak. Printzipio horiek hizkuntza-autonomia garatzeko esparrua eratzen dute, autonomia hori hainbat modutan gara daitekeelako.

Bigarren kapituluan garatzen dira Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean udalerriei ematen zaizkien hizkuntza-eskumenak, bai eta eskumen horiek garatzeko tresnak ere. Eskumen hori bereganatzeak, ikuspegi orokorretik, konpromiso berezia eskatzen du, erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza ikastea sustatzeko. Kapitulu horretan *ad intra* eskumen mota —barneko funtzionamendua eta udal-zerbitzuak normalizatzeko— eta *ad extra* eskumen mota —euskararen gizarte-erabilera udal-esparruan normalizatzeko— bereizten dira. Era berean, hizkuntza-eskumena garatzeko tresnak zehazten dira. Horretarako, plangintza-tresnen gutxieneko edukia finkatzen da,

eta toki-erakunde bakoitzak bere sistema erabaki ahal izango du, eduki hori abiapuntutzat hartuta.

Hirugarren kapituluan garatzen da toki-erakundeek erakunde- eta administrazio-eremuetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko modua. Horren harira, euskarak, gaztelaniak bezala, erabilera normal eta orokorra izatea ezartzen da, herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea beti bermatuta egonik, inolako diskriminaziorik gabe. Hirugarren kapituluko lehen atalean laneko hizkuntzen erregimena garatzen da, eta honako eremu hauetan euskararen erabilera normalizatua ahalbidetzen da: barneko jarduketetan, kide anitzeko organoen dokumentazioan eta funtzionamenduan eta abarretan. Bestalde, alderdi berria da hizkuntza-eskakizunen egiaztapenaren eta lanpostuetako jardueretan euskara erabiltzeko irizpideen arteko lotura. Era berean, interpretazioaren erabilera arrazionalizatzeko irizpideak ezartzen dira, baita bulegotikako materialak eta tokiko administrazioek erabiltzen dituzten eta zerbitzuak emateko baliatzen diren Internet eta intraneteko sareak erabiltzeko irizpide aplikagarriak ere.

Hirugarren kapituluko bigarren atalean zerbitzu-hizkuntza lantzen da. Nabarmentzekoa da arauak herritarrei aitortzen dien funtsezko eginkizuna, hizkuntza aukeratzeko eskubidearen ardatz nagusitzat hartuta. Era berean, administrazio-prozesuetako hizkuntza, jakinarazpenen erregimena, komunikazio orokorrak, herritarrei arreta emateko hizkuntza-irizpideak eta eredu normalizatueta hizkuntzak erabiltzeko erregimena ere arautzen dira. Arau honek administrazio elektronikoko sistema ere kontuan hartzen du, eta zenbait gidalerro ezartzen ditu hizkuntza ofizialak kopia elektronikoko autentikoetan erabiltzeari eta erabilera horrek toki-erakundearen erregistro elektronikoko orokorrean eta sistema automatizatueta izan ditzakeen ondorioei buruz. Azkenik, hizkuntzak erabiltzeari buruzko gidalerroak gardentasunaren eta udal-gobernu onaren esparruan ere ematen dira; zehazki, publizitate aktiboan eta udal-informazio publikoa eskuratzeko esparruan (azken hori udal-dokumentazioaren bertsio autentikoei lotuta dago).

Hirugarren kapituluko hirugarren eta laugarren atalak kontratazio-klausuletako hizkuntzari eta udal-sustapeneko jardueretako hizkuntzari buruzkoak dira, hurrenez hurren. Kasu batean eta bestean herritarrak gako dira sistema osoan. Helburua da kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak jasotzeko eskubidea herritarrei bermatzeko behar diren klausula guztiak administrazio-kontratueta ezartzea, jarduera eta zerbitzuok toki-erakundeei eskatu ahal zaizkien hizkuntza-baldintzetan emanda. Halaber, diruz lagundutako jardueraren xedea gauzatzeko, hizkuntzen erabilera bereziki garrantzitsua denean, sustapen-jardueran bermatu behar da publizitatean eta jardueran bertan hizkuntza-irizpideak baliatzea.

Laugarren kapituluan arautzen da hizkuntzen erregimena erakundeen arteko harremanetan, hau da, gainerako administrazio publikoekin izaten dituzten harremanetan. Horren harira, dokumentazioa euskaraz egin baldin bada, hizkuntza horretan bidali ahal izango da; betiere, administrazio hartzailea dagoen lekuan euskara

hizkuntza ofiziala bada. Aitzitik, dokumentu horiek euskararen hizkuntza-eremutik kanpora bidaltzekoak baldin badira, gaztelaniazko itzulpenarekin batera bidali beharko dira. Era berean, esku-hartze publikoetan euskararen erabilera sustatzea ezartzen da, komunikazio instituzionalean euskararen erabilera normalizatua ohikoa izan dadin.

Bosgarren kapituluan udal-toponimia eta bideetako eta zerbitzuetako seinaleak lantzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoaren ordenamenduan Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. Artikulua da toponimia arautzen duen lege-mailako xedapen bakarra. Eremu horretan zenbait botere publikoren eskumen eta erantzukizunak uztartzen dira; hortaz, zuhurtziaz jo da araubide juridiko aplikagarrien diseinua egitean; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren tokiko araubidearen eta hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumenak errespetatuz jorratu da. Arauak lurralde historikoen eskumena errespetatzen du, goi-mailako toponimoak eta sektoreko eskumenen ondoriozkoak onartzeari eta arautzeari dagokienez. Hori dela eta, toki-erakundeen izena aldatzeko prozedura dagokion foru-araudiaren arabera da. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak, tokiko administrazioaren arloko eskumena duen sailak proposatuta, udalerriei proposatu ahal izango die izena zuzentzeko, baldin eta hizkuntza-akatsak badaude edo toponimia tradizionalarekin bat ez badatoz. Era berean, toki-erakundeen eskumenen mende dauden gainerako lurralde-toponimoak zehazteko eta aldatzeko prozeduraren oinarrizko arauak ezartzen dira; horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen mendeko toponimoak onartzeko eta ofizialtzeko prozedura osoa ere zehazten da. Bestalde, dekretuan ezartzen dira, hizkuntza-ikuspegitik, administrazioek beren eskumenak baliatzean kontuan hartu beharko dituzten funtsezko printzipio gidariak. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegia sortu da. Erregistro publikoa da, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailera atxikita, eta bertan inskribatuko dira Euskadiko toponimo ofizialak.

Seigarren kapituluan planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa lantzen da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 6. artikuluko 7. apartatua garatzeko. Tresna horren bidez, planek eta proiektuek euskararen eta gaztelaniaren erabileretan izan dezaketen inpaktua aztertu eta ebaluatu nahi da. Horrek aukera ematen du balizko hizkuntza-inpaktuari aurrea hartzeko eta hura zuzentzeko neurriak proposatzeko, gerta litezkeen inpaktu kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeko, bai eta kasu bakoitzean egoera bideratzeko irtenbiderik egokiena bilatzeko ere. Helburua aukerarik onena baliatzea da, plan edo proiektu bakoitzak hizkuntzen erabileraren normalizazioan izan ahal duen ondorioak aztertuta. Horretarako, planen eta proiektuen onarpenean hizkuntza-ikuspegia sartu da, garapenaren eta diseinuaren hasierako faseetatik kontuan hartzeko.

Hizkuntza-inpaktuaren prozeduraren ikuspuntua zabala da. Hori zentzuduna da: alde batetik, administrazio-jarduera errazten duelako; eta, bestetik, hizkuntza-politikarako tresnatzat hartuta, eraginkorragoa delako. Gai horretan ere, toki-erakunde bakoitzari

tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu ahal dezan, betiere gutxieneko irizpideak beteta. Hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko sistemak udalerriei aukera ematen die egoera aztertzeko eta baloratzeko, horrela jokatzeko sistema zorrotz eta itxi bat ezartzea baino eraginkorragoa izan daitekeelakoan. Diseinatu den prozedurak ebaluazio malgua egitea proposatzen du. Horrela, hizkuntza-inkaktuaren ebaluazioaren abantailez baliatu nahi duten udalerriek irizpide hori aztertzeko aukera izango dute, plangintza eta programak zehaztu aurretik.

Prozeduraren oinarria proportzionaltasunaren printzipioa da, hau da, planen eta proiektuen balizko inpaktua nolakoa den, halakoa izango da ebaluazioaren indarra. Hortaz, hizkuntza-erabileraren normalizazioan inpaktua izan dezaketelako, zer plan eta proiektu ebaluatu beharko diren zerrendatu da. Horrekin batera, salbuespen-sistema zabala ere ezartzen da, bai eta administrazio-isiltasunaren epeak eta ondorioak ere. Prozeduran aurretiazko fase bat ere sartu da, eta fase horretan balizko hizkuntza-inpaktua aztertuko da, inpaktua ebaluatzeko fasearekin batera. Hizkuntza-inkaktuaren ebaluazioari buruzko txostena aginduzkoa da. Txosten horretan planek edo proiektuek euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen eragina aztertuko da, eta, horrez gain, neurri zuzentzaileak edota konpentsazio-neurriak ere proposatuko dira.

Zazpigarren kapituluan jorratzen da erakundeek euskararen erabilera normalizatuaren alde eman dezaketen bultzada. Helburua irudi publikoa sustatzea eta euskara erabiltzea informatzen dituzten printzipioak ezartzea da. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta hedatzeko laguntza-zentroen sorrera ezartzen da; batez ere, hizkuntza- eta gizarte-egoera dela eta, bereziki beharrezkoa den tokietan. Era berean, toki-erakundearen gobernu-taldeak osoko bilkurari edo toki-erakundeko ordezkari-organoren gorenari hizkuntza-normalizazioaren prozesuari buruzko informazioa eman beharko dio urtero.

Dekretu hau emateko oinarriak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.2 eta 10.4 artikuluetan ezarritako eskumenak dira.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa ados egonda, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko XXXXXren 00(e)ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea

1. Arau honen xedea da euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzionalak eta administratiboak arautzea Euskadiko toki-erakundeetan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea garatzeko eta herritarren eta toki-erakundeen arteko harremanetan hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

2. Hauek dira dekretuaren helburu nagusiak:

- a) Herritarrei euskararen eta gaztelaniaren erabilera ofiziala diskriminaziorik gabe bermatzea toki-erakundeekin harremanetan jartzen direnean.
- b) Euskararen erabilera tokiko administrazioan normalizatzea eta sustatzea, euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta laneko hizkuntza gisa normaltasunez eta orokorrean erabil dadin.
- c) Herritarrek euskara erabil dezaten sustatzea.
- d) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeari dagokionez, benetako berdintasuna lortzea, horretarako behar diren ekintzak bultzatuz eta xede hori eragozten duten oztopoak ezabatuz.
- e) Euskararen erabilera sustatzea toki-erakundeen bizitzaren eremu guztietan.

2. artikulua.– **Aplikazio-eremu subjektiboa**

1. Dekretuan ezarritakoa toki-erakunde hauetan aplikatuko da:

- a) Udalerrietan
- b) Kontzejuetan eta udalerriarena baino eremu txikiagoko edozein lurralde-erakundeetan, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubideko oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera.
- c) Udalerrien mankomunitateetan
- d) Arabako lurralde historikoko kuadrilletan
- e) Partzuergoetan
- f) Edozein toki-erakundetan, dagokion izenaren mende zenbait toki-erakunde biltzen baldin baditu.

2. Horrez gain, dekretu honetan ezarritakoa tokiko sektore publikoko beste erakunde batzuetan ere aplikatu ahal izango da. Honako hauek dira:

- a) Toki-erakunde autonomoak.
- b) Tokiko enpresa-erakunde publikoak.
- c) Tokiko merkataritza-sozietateak.
- d) Tokiko fundazioak, baldin eta tokiko administrazioak, haren mendeko organismo publikoek edo tokiko sektore publikoko gainerako erakundeek, zuzenean nahi zeharka, haiek eratzeko behar den ondarea osatzeko ekarpenen gehiengoa edo haien fundazio-ondarearen % 50etik gora emandako edo lagatako ondasunez edo eskubidez modu iraunkorrean eratuta badago.
- e) Elkarateak, baldin eta, elkarateok osatzeko, toki-erakundeek, haien mendeko organismo publikoek edo tokiko sektore publikoko gainerako erakundeek ekarpenen gehiengoa eman badute.
- f) Toki-erakunde batera atxikita dauden partzuergoak.
- g) Toki-erakundeek osatutako beste erakunde publiko instrumental batzuk: esaterako, sozietate interlokalak, baldin eta haiek osatzeko, tokiko administrazioak, haren mendeko organismo publikoek edo tokiko sektore publikoko gainerako erakundeek, zuzenean edo zeharka, ekarpenen gehiengoa eman badute; udal- eta toki-lankidetzako sareak; edo elkarate-oinarria duten tarteko erakundeak.
- h) Erakunde publiko instrumentalak, baldin eta haiek osatzeko, EAEko sektore publikoak, zuzenean edo zeharka, ekarpenen gehiengoa eman badu, eta toki-erakundeek ekarpenen gehiengoa eman badute.

3. Dekretu honetan arautzen diren hizkuntza-irizpideak udal-zerbitzu publikoak kudeatzeko enpresei eta erakundeei aplikatu ahal izango zaizkie, arau honetako 36. artikuluan ezarritakoa beteta.

4. Hizkuntza erabiltzeko irizpideak udal-laguntzen onuradunen eta diruz lagundutako jardueren xede diren ikus-entzuleen arteko harremanetan ere aplikagarriak izango dira; betiere, baldin eta, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritako hizkuntza-normalizaziorako helburuak kontuan hartuta, hizkuntzaren erabilera diruz lagundutako jardueran esanguratsua bada; eta jarduerok Euskararen erabilera normalizatzeko

azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluen esparruan euskararen erabilera sustatzen badute.

5. Era berean, irizpide horiek jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta erabilera komun bereziaren onuradunei ere aplikatuko zaizkie, onuradun gisa herritarrekin ezartzen dituzten harremanetan. Horretan bete beharko dira emakida-egintzan edo baimen-tituluan ezarritako baldintzak, zertarako eta araudi sektorialak eta dekretu honetako 35. artikulua kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

3. artikulua.– **Aplikazioko lurralde-eremua**

1. Arau hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei aplikatuko zaie.
2. Halaber, Euskadiko toki-erakundeen eta euskararen aplikazio-eremuko gainerako administrazioen arteko harremanei ere aplikatuko zaie. Horretarako, lankidetzahitzarmenak sinatzea sustatuko da. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako toki-erakundeen eta Lapurdiko, Nafarroako eta Zuberoako toki-erakundeen artean sinatuko dira, hizkuntza- eta kultura-lotura partekatutako ezartze eta indartze aldera.

4. artikulua.– **Eskumen-titulua**

Arau hau apirilaren 7ko 2/2016 Legea garatzeko ematen da (Toki Erakundeei buruzko Legea); betiere lurralde historikoek tokiko araubidean eta beren eskumeneko prozeduretan hizkuntza arautzeko dituzten eskumenei kalterik egin gabe, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen esparruan.

5. artikulua.– **Definizioak**

- «Normalizazio-planak»: toki-erakundearen hizkuntza-politikaren formulazioa ezartzen dute, apirilaren 7ko 2/2016 Legean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta dekretu honetan ezartzen diren hizkuntza-erabileraren normalizazio-helburuak betetzeko (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea; eta Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen 86/1997 Dekretua).

- «Arnasguneak»: eremu geografiko eta soziofuntzional horietan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa da, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra da gizarte-harremanetan; hargatik eragotzi gabe gaztelania ere ezagutzea eta erabiltzeko eskubidea bermatuta egotea.

- «Hizkuntza-inpaktua»: plan edo proiektu batek egoera soziolinguistiko batean egiten duen aldaketa da. Euskara normalizatzeko prozesuaren ikuspegitik, aldaketa onuragarria, kaltegarria edo neutroa izan daiteke.

- «Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa»: planak onartzeko edo ezartzeko prozeduran, proiektuak baimentzeko prozeduran edo, hala dagokionean, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena behar duten proiektuak kontrolatzeko administrazio-jardunean egiten diren jarduketan multzoa da. Ebaluazioaren bitartez, planek eta proiektuek euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan izan ditzaketen ondorioak aztertzen dira, bai eta udalerrien egoera soziolinguistikoan izan dezaketen eragina ere. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioan «hizkuntza-ebaluazio estrategikoa» eta «hizkuntza-ebaluazioa» egiten dira:

- «Hizkuntza-ebaluazio estrategikoa»: planei eta programei buruzkoa da.

- «Hizkuntza-ebaluazioa»: proiektuei buruzkoa da.

- «Proiektuak eta planak»

- «Plana»: estrategiak, gidalerroak eta proposamenak dira, gizartearen behar batzuei erantzuteko diseinatuak. Ezin dira zuzenean egikaritu; proiektu baten edo batzuen bidez garatzen dira, eta proiektuok eragina izan dezakete udalerraren egoera soziolinguistikoan.

- «Proiektua»: obra, eraikuntza edo instalazio bat egiteko edo ustiatzeko egiten den edozein jarduketa, baldin eta jarduketa horrek udalerraren egoera soziolinguistikoari eragin ahal badio.

- «Plan edo proiektu baten funtsezko aldaketa»: jada baimendu edo abiarazi diren planetan edo proiektuetan estrategien, gidalerroen, proposamenen edo kronologiaren funtsezko aldaketak egitea, baldin eta udalerraren egoera soziolinguistikoaren funtsean edo euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan eragina sortzen badute. Honako hauek bereziki aztertuko dira: aldaketek biztanleen kopurua handitzea ekarriko duten, udalerraren hizkuntza-politikaren funtsezko alderdi bat aldatuko duten edo hizkuntza-erkidegoaren harreman-sareetan aldaketarik ekarriko duten.

- «Irismeneko dokumentua»: hizkuntza-inpaktua ebaluatu behar duen udal-organoaren erabakia da, eta sustatzaileari bidaltzen dio. Horren xedea «hizkuntza-azterketa»ren tamaina, xehetasun-maila edo espezifikazio-maila zehaztea da.

- «Hizkuntza-azterketa»: sustatzaileak egiten du. Hark ere planean edo proiektuan parte hartzen du, eta planak edo proiektuak euskararen erabileraren normalizazioan eta udalerraren egoera soziolinguistikoan izan ditzakeen ondorioak zehaztu, azaldu eta ebaluatzen ditu. Horrez gain, aukera erabilgarriak edo konpentsazio-neurri zentzudunak aztertzen ditu, plan edo proiektuaren aplikazio-eremua eta helburuak kontuan hartuta, plan edo proiektuak euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan izan ditzakeen ondorio kaltegarriak egon ez dadin, edo ahalik eta txikienak izan daitezzen.

- «Sustatzailea»: arau honen aplikazio-eremuan sartzen diren proiektu edo planetako bat egin nahi duen edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, plan edo proiektua hartu, onartu eta baimendu behar duen Administrazioa edozein izanda ere. Plana edo proiektua onartzeko udal-organo eskuduna planaren edo proiektuaren sustatzailea ere bada, udal-organo eskudunak bete beharko ditu arau honen bidez sustatzaileari agintzen zaizkion betebeharrak.

- «Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena»: txosten hori eginda, amaitutzat jotzen da hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa. Hizkuntza-alderdiak planaren edo proiektuaren amaierako proposamenean nola txertatu diren aztertzen du. «Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratu behar duen udal-organoa»k egin behar du.

- «Bilakaera-indizea»: zenbait faktore konbinatuta sortzen da indize hori. Hona hemen faktoreok: «biztanleriaren hazkunde-indizea» edo «bisitarien kopuruaren hazkunde-indizea»; «euskararen etorkizun-indizea»; «hauskortasuna».

- «Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoa»: organo horrek hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenen azterketa teknikoak egiten du, eta hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena ere idazten du. Hauxe izango da hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena idatzi behar duen udal-organoa:

a) Planak eta proiektuak osoko bilkurak onartu behar baditu:

- Euskara eta Hizkuntza Normalizazio Saila barne hartzen duen Udalaren Informazio Batzordea; eta Hirigintza Saila barne hartzen duen Udalaren Informazio Batzordea. Eta batera jardungo dute. Hirigintza eta Euskara saileko udal-teknikariek esan behar dutena entzun beharko da.

- 5.000 biztanle baino gutxiago duten udalerrietan, non Informazio Batzorderik ez baitago, udalaren osoko bilkurak batzorde berezi bat osatuko du, hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko. Hizkuntza Inpaktuaren Ebaluazioa egiteko prozeduran entzun behar zaie Hirigintza eta Euskara saileko udal-teknikariei.

b) Planak eta proiektuak alkateak onartu behar ditu:

- Euskara Saileko udal-teknikariari entzun beharko zaio; eta, aurrez, Hirigintza Saileko udal-teknikariari.
 - Udalerri batean Euskara Saileko udal-teknikaririk ez baldin badago, eta zerbitzua era mankomunatuan edo elkartze-moduan ematen bada, mankomunitatearen edo elkartearen zerbitzu teknikoko arduraduna izango da hura idatzi beharko duena, Hirigintza Saileko udal-teknikari arduradunari entzun ondoren.
 - Udalerri batean Euskara Saileko udal-teknikaririk ez badago, eta zerbitzua era mankomunatuan edo elkarte-moduan ematen ez bada, udalbatzak izendatzen duen funtzionarioak edo Tokiko Administrazioaren zerbitzura jarduten duen langileak, edo, bestela, udal-idazkariak idatzi beharko du Hizkuntzaren Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko txostena.
- «Toponimoa»: entitate geografiko bat izendatzeko erabiltzen den izen berezia. Leku-izena edo izen geografikoa ere esaten zaio. Honako hauek guztiak barne hartzen ditu: elementu geografikoak, tokiak, aurkintzak, hiri- eta landa-bideak, errepideak, kaleak, plazak, etorbideak, ur-lasterrak, itsasertzak, gainak, mendiak, harkaitzak, biztanleguneak, hiriak, herriak, eskualdeak, lurraldeak, poligonoak, sektoreak eta, orokorrean, kokagune fisiko identifikagarriak.
- «Alonimoa»: elementu geografiko bera izendatzen duen izen desberdin bakoitza.
- «Elementu generikoa»: toponimoari eransten zaion termino arrunta, izendatutako entitate geografikoaren izatasuna orokorrean azaltzen duena. Normalean, beste hizkuntza batean itzultzea onartzen du.
- «Entitate geografikoa»: paisaia naturalaren zein artifizialaren edozein elementu, izenduna edo izena eduki dezakeena.

- «Izendegia»: toponimo ofizialak eta haiei buruzko informazioa biltzen dituen katalogo ordenatua da.

6. artikulua.– **Printzipio gidariak**

1. Euskararen erabilera normala eta orokorra: Euskara Euskal Herriko hizkuntza da, eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek hizkuntza ofiziala da. Euskara hizkuntza ofiziala izanik, jarduera guztien zerbitzuko eta laneko hizkuntza izango da, baina, adierazpen horrek edo arau honetan euskararen erabilera normala edo orokorra aipatzeak ez du inola ere mugatzen beste hizkuntza ofiziala.
2. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea: toki-erakundeek politikak abiarazi behar dituzte hizkuntza-eskubide eta betebeharren erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sor daitezten. Horri dagokionez, honako hauek dira herritarren eskubideak:
 - a) Hizkuntza ofizial batean zein bestean ahoz zein idatziz aritzea, dekretu honetako 2. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. apartatuetan zerrendatutako toki-erakundeekin izaten dituzten harremanetan.
 - b) Hizkuntza ofizial batean zein bestean erantzuna jasotzea, erregelamendu honetan ezarritako terminoetan.
 - c) Administratu gisa, hizkuntza ofizial batean edo bestean aske aritzea udal-bizitzaren eremu guztietan, bai eta harreman edo egintza publiko eta pribatuetan ere.
3. Tokiko hizkuntza-autonomia: udalerriek autonomia aitortzen zaie, euskararen erabilera sustatzeko eta dinamizatzeko, bai eta beren hizkuntza-normalizazio instituzionala eta soziala lortzeko prozesua diseinatzeko ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta aplikatu ahal diren gainerako araudiak ere beteta. Horretan kontuan hartu beharko dituzte autonomia-erkidegoko erakunde komunek emandako euskararen erabilerari buruzko plangintzaren eta arauketaren gaineko irizpideak. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean udalerriek aitortzen zaien autonomia oinarri hartuta, udalerriok hizkuntza-politika, ekintzak eta jarduna bideratuko dituzte, euskararen erabilera guztiz normalizatua lortzeko, bai eta erakundeek eta administrazioaren funtzionamendua mailaka euskalduntzeko ere.
4. Autoantolaketaren printzipioa: Tokiko erkidego bakoitzak eskubidea dauka hizkuntza-arloaren gobernuan eta administrazioan parte hartzeko, bere gobernu-organoen bitartez. Bere eskumenen barnean, toki-erakunde bakoitza arduratuko da hizkuntza-arloa kudeatzeaz.

5. Diskriminaziorik ezaren printzipioa: ez da inor baztertuko, erabiltzen duen edo erabili nahi den hizkuntzarengatik.
6. Ekintza positiboaren printzipioa: toki-erakundeek neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabilera kaltetzen duen edozein bereizketa, muga edo justifikaziorik gabeko lehentasuna ere ezabatzeko. Euskaldunen artean eta beste hizkuntza ofizialaren hitzunen artean berdintasuna sustatzeko, edo euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko, euskararen aldeko neurri bereziak hartzen baldin badira, ez da joko gaztelaniaren hitzunik baztertzeko egintzatzat.
7. Hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak egitea, hizkuntzaren aniztasuna sustatzea eta atzerapausorik ez ematea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta:
 - a) Toki-erakundeek gero eta gehiago erabiliko dute euskara, bai barneko jardueretan, bai kanpoan egiten diren jardueretan ere.
 - b) Toki-erakundeek euskara babesteko, laguntzeko eta sustatzeko jarduketak egingo dituzte, beren eskumen-eremu guztietan. Horretarako, beharrezko neurriak eta behar bezalako baliabideak hartuko dituzte.
 - c) Toki-erakundeek euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatuko dute, bai bizitza publikoan, bai bizitza pribatuan, euren eskumenen eremuan.
8. Efikaziaren eta efizientiaren printzipioa: toki-erakundeek hizkuntza-plangintza moldatuko dute, efikaziaren eta efizientiaren printzipioen eskakizunen arabera, eta baliabide publiko erabilgarriak modu zentzudunean erabiliko dituzte.
9. Proporzionaltasunaren printzipioa: toki-erakundeek hizkuntza normalizatzeko prozesua diseinatzen dutenean, bermatu beharko dute neurrien xede legitimoa nolakoa den, xede hori lortzeko neurri egokiak eta neurritsuak hartzea, xede bera lortzeko neurri onuragarriagorik eta besteak bezain eraginkorrik ez egotea, eta neurriok neurritsuak eta orekatuak izatea (behin aplikatuta, ondasun edo interes gatazkatsuei egin dakiekeen kaltea baino handiagoa izango baita interes orokorrerako onura).
10. Plangintza: toki-erakundeek jardun antolatua garatuko dute, euskararen erabilera instituzionala eta soziala normalizatzeko.

7. artikulua.– **Araudi akademikoa eta hizkuntzaren erabilera ez-baztertzaila**

1. Toki-erakundeek errespetatuko dute hizkuntza ofizial bakoitzari dagokion araudi akademikoa.
2. Euskarari dagokionez, hizkuntzaren batasuna zainduko dute, Euskaltzaindiak ezarri dituen eta indarrean dauden hizkuntza-arauei jarraikiz. Horretarako, Euskaltzaindiak onartu dituen indarreko arauak txostenetan, idazkietan eta ahozko adierazpenetan ere bete beharko dira, eta idazkeraren eta hizkeraren eredu jasoak baliatuko dira, komunikazioaren hartzaileen arabera moldatutako hizkuntza-erregistroetan.
3. Tokiko eremuan, era eskusiboan, hizkuntzaren erabilera formala erkidego horretako hiztunen euskalkien eta ezaugarri sozialen arabera moldatuko da, komunikazio-egoera bakoitzaren hartzaileak kontuan hartuta, eta testuak ere egoeraren arabera egokituta.
4. Toki-erakundeek ez dute hizkuntzaren erabilera sexistarik egingo.

II. KAPITULUA

UDALERRIEN HIZKUNTZA-ARLOKO ESKUMENAK ETA ESKUMENAK GARATZEKO TRESNAK

8. artikulua.– **Aitorpena**

1. Udalerriek hizkuntza-arloan dituzten eskumenak baliatuko dituzte, bai barneko jarduketetan, bai kanpora begira egiten dituzten jardueretan; eta kasu guztietan Euskadiko Toki Erakundeen Legearen eta arau honen baldintzak bete beharko dituzte.
2. Hizkuntza-arloko udal-eskumena legez bereganatzeak konpromiso berezia ekartzen du berekin, hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko.
3. Hizkuntza-arloko udal-eskumena arauak emateko edo ordenatzeko, antolatzeko, programatzeko, sustatzeko, kudeatzeko edo betearazteko funtzioen edo ahalen bitartez baliatuko da.

9. artikulua.– ***Ad intra* eskumen mota**

1. Udalerriek euskararen erabilera sustatuko dute, eta euskararen normalizazioa administrazio-organoetan eta euren eskumenen eremuko zerbitzuetan eta jardueretan antolatuko dute.
2. Hizkuntza-plangintzaren bidez, udal-jarduketak euskaraz ere, gaztelaniaz bezala, egin ahal izatea sustatuko da. Horretarako, neurriak hartuko dira toki-erakundeen euskarazko jarduna sustatzeko; bereziki, euskararen arnaguneetan.

3. Udalerriek hautetsien ahozko eta idatzizko gaitasuna sustatuko dute hizkuntza bietan, toki-erakunde bakoitzak ezartzen dituen baliabideen bitartez.

4. Udallerri bakoitzak neurriak hartuko ditu bere zerbitzura lan egiten duten pertsonak euskara ikasi, hobetu eta optimizatu dezaten.

10. artikulua.– *Ad extra* eskumen mota

1. Udalerriek euskararen ezagutza eta erabilera sustatu eta dinamizatuko dute, beren lurralde-eremuan egiten dituzten jardueretan. Euskararen erabileraren sustapena eta dinamizazioa herritarrei zuzendutako prestazioetan eta sustapen-jardueretan gauzatuko da. Horretarako, gizarte-jarduerak finantzatzen lagunduko da, eta jarduera horietan euskara erabiltzea bultzatuko da, jardueren xedeak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

2. Udalerriek neurriak antolatuko dituzte euskararen ezagutza sustatzeko, eta euskararen erabilera soziala hedatzeko, bereziki, bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturean, elkarte-jardueretan, kirolan, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu-jardueretan, udal-eremuko prentsan eta prestakuntzakoan.

11. artikulua.– *Zehaztapenak eta tresnak*

1. Hizkuntza-arloko udal-eskumena oinarri hartuta, udalerriek, bakoitzaren egoera soziolinguistikoa oinarri hartuta, gutxienez, honako alderdi hauek arautuko dituzte, dekretu honen esparruan:

- a) Udal-gobernuaren organoetan hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak.
- b) Udal-zerbitzuetan hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak.
- c) Herritarrekiko eta beste erakunde batzuekiko ahozko eta idatzizko harremanetan euskarak zer leku behar duen.
- d) Dokumentu estandarizatuen hizkuntza-formatua.
- e) Ekitaldi publikoetan euskarak zer leku behar duen.
- f) Beste administrazio batzuekiko harremanetan hizkuntzak erabiltzeko modua.
- g) Argitalpenetan euskarak zer leku behar duen.

- h) Euskara, hizkuntza-argazkian eta errotuluetan.
- i) Itzulpenak eta interpretazioak egiteko irizpideak.
- j) Sustapen-jardueretan erabili ahal diren hizkuntza-irizpideak, diru-laguntzen xede diren jardueren helburuak eta ezaugarriak kontuan hartuta.
- k) Administrazio-kontratazioan erabili behar diren hizkuntza-irizpideak.
- l) Iragarkietan, publizitatean eta publizitate-kanpainetan bete behar diren hizkuntza-irizpideak.

2. Honako hauek dira udalaren hizkuntza-politika gauzatzeko tresnak:

- a) Hizkuntza normalizatzeko planak: haien edukia Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoaren edo hura ordeztzen duen beste araudi baten arabera izango da.
- b) Hizkuntza normalizatzeko ordenantzak: xedapen orokorrak dira, eta iraunkorrak izateko bokazioa dute. Hizkuntza-arloko eskubideak eta betebeharrak ezartzen dizkieten herritarrei.
- c) Hizkuntza normalizatzeko erregelamenduak: xedapen orokorrak dira, eta toki-erakundearen hizkuntza-antolaketa eta -funtzionamendua arautzen dute, bai eta zerbitzu publikoetan erabiltzen den hizkuntza ere.
- d) Jardun-planak: xedapen orokorrak dira, eta Hizkuntza Normalizatzeko Planaren alderdiren bat garatzen dute, hark ezartzen duena baino epe laburragoa ezarrita.

3. Euskararen arloko eskumenak gauzatzeko, toki-erakundeek honako tresna hauek ere erabili ahalko dituzte:

- a) Lankidetzaren funtzionalerako tresnak (adibidez, lankidetzaren hitzarmenak).
- b) Lankidetzaren organikorako tresnak: esaterako, erakunde pribatu eta publikoekin batera, mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeetan esku hartzea, edo lankidetzarako beste modu batzuetara jotzea.
- c) Sustapen-jardueraren berezko tresnak: esaterako, laguntzak eta diru-laguntzak, jardueraren mota horren oinarriko araudiarekin bat etorrira.

- d) Jabari publikoa erabili ahal izateko baimen-tituluak.
- e) Administrazio-kontratuak egiteko tresnak.

III. KAPITULUA

HIZKUNTZAREN ERABILERA ERAKUNDEETAN ETA ADMINISTRAZIOAN

12. artikulua.– Hizkuntza ofizialen erabileraren arauketa eta plangintza

Toki-erakundeek, toki bakoitzaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, tokiko jardueretan euskara zerbitzu-hizkuntza eta laneko hizkuntza gisa orokorrean eta normaltasunez erabiltzea antolatu eta arautuko dute, jarraian zehaztu diren artikuluetan jasotako irizpideekin bat etorrira.

13. artikulua.– Erabilerak eta jarduerak

Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da, eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da. Hortaz, toki-erakundeetan orokorrean eta normaltasunez erabiltzen den hizkuntza izango da, beste hizkuntza ofiziala inola ere mugatu gabe. Horretarako, toki-erakundeek gero eta gehiago erabiliko dute euskara, bai barneko jarduketetan, bai kanpora zabaltzen diren jardueretan ere.

14. artikulua.– Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa

Hizkuntza ofizial batean egin diren egintza juridikoak eta administrazio-jarduketak erabat baliagarriak izango dira, hizkuntzari dagokionez; eta herritar bakoitzak hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea bermatu behar da.

15. artikulua.– Harremanetarako hizkuntza aukeratzeko eta diskriminaziorik ez egiteko eskubidea

1. Toki-erakundeek pertsoneri bermatuko diete erakundeekiko harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea. Hortaz, toki-erakundeek, era korrelatiboan, herritarrek zer hizkuntza aukeratu duten, hizkuntza horretan eman beharko diete erantzuna, horretarako behar diren neurriak aurrez hartuta.
2. Herritarrek zer hizkuntza ofizial erabili nahi duten, toki-erakundeek zainduko dute hizkuntzaren erabilerak inolako diskriminaziorik ez eragitea.

16. artikulua.– Erakundeen irudia

1. Toki-erakundeen irudi korporatiboaren elementuak —bereziki, organoen eta erakundeen izenak— euskaraz idatziko dira, gutxienez, edozein euskarritan.
2. Toki-erakundeetako bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotulu adierazleak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, edozein euskarritan. Honako kasu hauetan euskara hutsez jarri ahalko da errotulua:
 - a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
 - b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
 - c) Mezuarekin batera, piktograma bat ere dagoenean, esanahia argitzeko.
3. Toki-erakundeen irudi instituzionalean hizkuntza ofizial biak erabiltzen direnean, lehentasuna eman beharko zaio euskarari.

1. atala- Laneko hizkuntza

17. artikulua.– Barneko jarduketak

1. Euskara eta gaztelania Euskadiko toki-erakundeen hizkuntza ofizialak dira; hortaz, barneko jarduketetan bata eta bestea erabat baliodunak dira, juridikoki. Toki-erakundeek euskararen erabilera arautu eta antolatuko dute, barneko jarduketetan laneko hizkuntza gisa normaltasunez eta orokorrean erabil dadin.
2. Hizkuntza Normalizatzeko Planean euskara-unitate izendatzen diren zerbitzuetan, laneko hizkuntza euskara izango da, ahozko zein idatzizko harremanetan.
3. Barneko administrazio-jarduketetan jakinarazpenik edo komunikaziorik egin behar ez denean, jarduketok euskaraz egin eta idatzi ahal izango dira; herritarren hizkuntza-eskubideak kasu guztietan bermatuta.
4. Toki-erakundeen barne-komunikazioak orokorrean eta normaltasunez euskaraz izan ahalko dira.

18. artikulua.– Dokumentazioa

1. Toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, norberaren botoak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, akordioak eta aktak eta gainerako udal-dokumentuak euskaraz idatzi ahal izango dira, toki-erakunde bakoitzak onartu duen araudian ezarritakoarekin bat etorruta. Toki-erakundeko kide batek legez eta era baliodunean alegatzen badu ez duela ezagutzen udal-

dokumentuak idazteko erabili den hizkuntza, dokumentuak beste hizkuntza ofizialean itzulita eskuratuko zaizkio, bere hizkuntza-eskubideak ez kaltetzea ziurtatze aldera.

2. Udalaren barne-dokumentazioa hizkuntza bakarrean (euskaraz edo gaztelaniaz) idatziko da; hargatik eragotzi gabe interesdunei jakinarazpenak eta komunikazioak egiteari buruzko hizkuntza-irizpideak geroago aplikatzea.
3. Erabilera-planetan ezarri ahalko da lehenetsua ematea Aldizkari Ofizialean argitaratzeko eskusiboki egiten diren dokumentuak euskaraz sortzeari. Gero, gaztelaniara itzuliko dira, argitaratze ondoreetarako.

19. artikulua.– **Organoen funtzionamendua**

1. Toki-erakundeetako kide anitzeko organoen bilerak euskaraz egin ahalko dira, parte hartzen duten pertsonak hizkuntza ezagutzen baldin badute.
2. Kide anitzeko organoko kide guztiak euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren, mezuak ulertzeko gai baldin badira, bilera bideratzeko hizkuntza nagusia euskara izan ahalko da, eta euskaraz aritu ezin dutenek gaztelaniaz hitz egin ahalko dute.
3. Toki-erakundeek, beren jarduketak euskaraz egitea ahalbidetze aldera, sustatuko dute hautetsiek hizkuntza ofizialetan behar besteko gaitasuna (mintzatuaren eta idatziaren ulermena) izan dezaten, autoantolaketaren printzipioarekin batera. Horretarako, hautetsiei agintaldian emango zaie euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaroak egiteko aukera.
4. Toki-erakundeen bilkura publikoetan, herritarrek autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, eta ezingo zaie eskatu haiek aukeratu ez duten beste hizkuntza batean itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik. Beste hizkuntza batean itzulpenik egin behar baldin bada, toki-erakundeak bere baliabideen bitartez eman beharko du, era mankomunatuan edo elkartze-moduan.
5. Toki-erakundeek neurriak hartuko dituzte, toki-erakundeek euskaraz funtziona dezaten; eta, bereziki, euskararen arnaguneetan.

20. artikulua.– **Hizkuntza-eskakizuna eta erabilera-irizpideak**

1. Toki-erakundeek behar bezalako neurriak hartuko dituzte toki-erakundeetako langileek herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko gaitasuna eskura dezaten, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorruta, edo dekretu hori ordeztzen duen beste araudi batean ezarritakoarekin bat (86/1997 Dekretuak Euskal

Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen du). Horretarako, neurriak garatuko dituzte enplegatu publikoek euskara ikasi eta etengabe hobete dezaten; eta, halaber, langileen parte-hartzea bultzatuko dute euskalduntze-ikastaroetan eta euskaraz ematen diren ikastaroetan.

2. Toki-erakundeek zerbitzura jarduten duten langileek lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu baldin badute, behar bezalako gaitasuna aitortuko zaie lanpostuaren berezko funtzioak hizkuntza ofizialetan egiteko, hizkuntza-eskakizun bakoitzaren arabera. Hortaz, euskara laneko hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabili ahalko dute, toki-erakundeak ezarri dituen erabilera-irizpideei jarraikiz, eta zerbitzuaren beharrak zeintzuk diren.

3. Toki-erakundeek zerbitzura jarduten duten langileek lanpostuari nahitaez esleitutako hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu baldin badute, euskaraz jardungo dute, ahoz zein idatziz, toki-erakunde bakoitzak onartu duen planean horri buruz ezarrita dagoenarekin bat etorrira.

4. Hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileek euskaraz jasoko dituzte toki-erakundearen prestakuntza-planeko ikastaroak, hizkuntza-plangintzarekin bat. Era berean, prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen zaie toki-erakundeek zerbitzura jarduten duten langile guztiei. Langileak prestatzeko erantzukizuna duen sailak horretarako neurriak hartu beharko ditu.

21. artikulua.– **Itzulpenen arrazionalizazioa**

1. Euskadiko toki-erakundeek, barneko jarduketetan, era arrazionalizatuan erabiliko dituzte itzulpengintza- eta interpretazio-zerbitzuak. Euskaraz idatzitako dokumentuak ez dira gaztelaniara itzuliko, baldin eta jotzen bada toki-erakundearen zerbitzura jarduten duten langileek edo udalbatzako kideek dokumentu horiek ulertzeko euskara-gaitasuna eskuratu dutela. Maila hori toki-erakunde bakoitzak zehaztuko du, eta, gutxienez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B2 izango da.

2. Toki-erakundeek modu arrazionalizatuan joko dute itzulpenetara. Ildo horretatik, kargudun publikoei edota funtzionarioei dokumentuak edo mezuak ulertzeko laguntza emango diete, behar duten guztietan.

22. artikulua. – **Bulegotikako materiala**

1. Euskadiko toki-erakundeek bulegotikako materiala —hardwarea eta softwarea— egokitu behar da, euskaraz ere funtziona dezan.

2. Toki-erakundeetan bereziki erabiltzeko sortzen den softwareak euskaraz erabiltzeko modukoa izan beharko du; hargatik eragotzi gabe gaztelaniaz ere erabili ahal izatea. Horretarako, informatika-programa bururatzeko fasean, kontuan hartuko beharko dira euskarazko eta gaztelaniazko funtzionamenduaren beharrak. Zehazki, saiatu egingo da lehenik aplikazio osoa gaztelaniaz ez egiten, eta, ondoren, programak euskarara egokitzen.

3. Toki-erakundeek informatika-aplikazioak egokitu beharko dituzte, herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubideak baliatu ahal ditzaten.

4. Toki-erakundeek euskarara egokitutako informatika-aplikazioak edukiko dituzte, tokiko administrazioaren zerbitzura jarduten duten langileek erabili ahal ditzaten, eskatuz gero; eta betiere lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileek erabil ditzaten.

23. artikulua.– **Interneteko eta intraneteko sareak**

1. Toki-erakundeen erantzukizunaren mendeko dokumentuak intranetetik edo Internetetik kontsultatu ahal direnean, euskaraz eta gaztelaniaz eskaini beharko dira.

2. Toki-erakundeen web-edukiak jasotzeko hasierako orria, era lehenetsian, euskarazkoa izango da. Orri horretan edukiak gaztelaniaz jasotzeko esteka ere jasota egongo da, eta, hala badagokio, ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuetan jasotzeko estekak ere jasoko dira.

3. Toki-erakundeen web-orrialdeen URL helbideek euskarazko hitzak eduki behar dituzte.

4. Izapideak Internet edo intraneten bidez egiteko aukera ematen baldin bada, izapideak euskaraz eta hizkuntza ofizial bietan egiteko aukera eman beharko da.

5. Aurreko paragrafoetan agindutakoa web-orrietan txertatuta dauden edukiei aplikatuko zaie, toki-erakundeetatik kanpo sortu diren arren.

2. atala- Zerbitzuko hizkuntza

24. artikulua.– **Prozeduren eta administrazio-espedienteen hizkuntza**

1. Administrazio-prozeduren izapide-hizkuntza euskara izango da, baldin eta interesdun bakarra badago, eta pertsona horrek eskabidea euskaraz egin badu; edo pertsona batzuk badaude, eta euskaraz eskatu badute.

2. Interesdun batek eskatuta hasten diren gainerako prozeduretan toki-erakundeak, bere araudiari jarraikiz, izapidetze-hizkuntza zehaztuko du, indarreko legeen arabera; eta parte hartzen duten alderdiekin ados jartzen saiatuko da.

3. Toki-erakunde bakoitzak, lurralde-eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta, hizkuntzen erabilera zehaztuko du ofizioz hasten diren administrazio-prozeduretan. Euskararen erabilera normala eta orokorra izan ahalko da ofizioz hasten diren administrazio-prozeduren izapideetan.

4. Aurreko bi apartatuetan aipatu diren kasuetan, prozedura berean interesdun batzuk baldin badaude, eta hizkuntzari buruzko erabakian ados jartzen ez badira, toki-erakundeak berak onartu duen araudian ezarritakoaren arabera, prozedura euskaraz ala gaztelaniaz izapidetuko da. Dena den, interesdunek dokumentuak eta lekukotza zer hizkuntzatan eskatu, hizkuntza horretan bidaliko zaizkie.

25. artikulua.– **Komunikazioak eta jakinarazpenak**

1. Toki-erakundeen eta herritarren arteko harreman guztietan bermatuko da hizkuntza bien erabilera, norberaren hizkuntza-aukera bermatze aldera.

2. Pertsona fisikoei edo juridikoei bidaltzen zaizkien komunikazioak eta jakinarazpenak haiek aukeratutako hizkuntzan igorriko zaizkie.

3. Toki-erakundeen eta pertsona juridiko zein pertsona fisikoen arteko harremanetan, toki-erakundeek arretaz erreparatuko diete pertsona horiek erabili nahi duten hizkuntza agerian uzten duten inguruabarrei, eta hizkuntza horretan bideratuko dituzte komunikazioak eta jakinarazpenak.

4. Pertsona fisikoek edo juridikoek zer hizkuntza aukeratu, hizkuntza horretan igorriko zaizkie komunikazioak eta jakinarazpenak.

26. artikulua.– **Komunikazio orokorrak**

Toki-erakundeek kontuan hartuko dituzte hartzaileen ezaugarri linguistikoak, eta horien arabera moldatuko dituzte komunikazio orokorren hizkuntza, estiloa eta formatua, bai eta komunikazioen hizkuntza-trataera ere.

27. artikulua.– **Herritarrei erantzutea**

1. Herritarrei zuzenean erantzuteko ezarrita dauden lanpostuetan edo unitateetan honela jokatuko da ahozko harremanetan:

- a) Toki-erakundeetako langileek herritarrei euskaraz esango diete lehenengo hitza edo esaldia; gero, herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute.
- b) Herritar batek enplegatu publiko bati euskaraz hitz egiteko asmoa erakutsi edo euskaraz hitz egiten baldin badio, baina enplegatuak euskara ez badaki, enplegatuak lankide elebidun bati laguntza eskatu beharko dio.
- c) Herritarrak eskatu duen hizkuntzan eman beharko da zerbitzua. Toki-erakundeetako langileek ez diete eskatuko herritarrei hizkuntza batean edo bestean mintzatzeko. Toki-erakundeek bermatu beharko dute zuzeneko erantzuna emateko zerbitzuetan jarduten duten langileek euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko behar bezalako gaitasuna edukitzea.
- d) Aurreko apartatuetan araututako arretan zuzeneko arreta eta telefonozko arreta ere sartzen dira.
- e) Hartzaile zehatzik gabeko mezuak gailu automatikoen, telefonozko informazio-zerbitzuen, bozgorailuen edo antzeko bitartekoen bidez zabaltzen direnean, lehenik euskaraz egingo dira.

2. Idatzizko harremanetan, toki-erakundeek honela jokatuko dute:

- a) Toki-erakundeek idatzizko testuak erantzun behar dituztenean, herritarrak erabilitako hizkuntzan (euskaraz ala gaztelaniaz) erantzungo dute, baita bide telematikoz edo elektronikoz erantzuten dutenean ere.
- b) Zerbitzuen datu-baseetan eta erregistroetan pertsona fisikoen edo juridikoen datuak jasotzen direnean, beste eremu batean jaso beharko da pertsona bakoitzarekin zer hizkuntzatan komunikatu.
- c) Hartzaile zehatzik ez duten administrazio-dokumentuak hizkuntza ofizial bietan idatzi beharko dira.

28. artikulua.– **Eredu normalizatuak**

1. Eredu normalizatuak bi bertsiotan eskainiko zaizkie herritarrei: euskaraz idatzita edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzita (hots, elebidunak). Formatu elebidunetan lehentasuna emango zaio euskararen kokapenari.

2. Euskarazko eta gaztelaniazko dokumentuak bereizita eskainiko zaizkie herritarrei, baldin eta, dokumentuen luzera kontuan hartuta, dagokion toki-erakundeak hala

erabakitzen badu. Hala denean, bi eruedetan ohartarazi beharko da beste hizkuntza ofizialean idatzitako dokumentuak ere herritarren eskura daudela.

29. artikulua.– **Kopia elektronikoa autentikoa**

Toki-erakunde batek egindako kopia autentikoa baliodunak izango dira gainerako administrazio publikoetan ere, zer hizkuntzatan egin diren alde batera utzita. Hala eta guztiz ere, EAEko erakundeetan egindako dokumentuak beste autonomia-erkidego batera bidali behar badira, eta autonomia-erkidego horretan euskara hizkuntza ofiziala ez baldin bada, gaztelaniazko itzulpenarekin batera bidaliko dira, eta jatorrizko euskarazko dokumentutik itzuli dela ohartaraziko da.

30. artikulua.– **Erregistro elektronikoa orokorra**

1. Euskadiko toki-erakundearen erregistro elektronikoa, oharpenetan eta idazpenetan datuak biltzeko edo datuak prozesatzeko, euskara zein gaztelania erabili ahaliko dira, toki-erakunde bakoitzak horri buruz ezarri duenari jarraikiz. Horretan, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa betetzea bermatzeko behar diren neurri guztiak hartuko dira; zehazki, beste administrazio publiko batzuekiko bateragarritasun informatikoari edo elkarren arteko konexioari eta erregistroetako idazpenak edo dokumentuak bidaltzeari dagokienez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, hain zuzen ere).

2. Igortzen diren ziurtagiriak euskaraz, edo, interesdunak eskatuta, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, idazpenetan idazteko baliatu den hizkuntza ofiziala gorabehera.

31. artikulua.– **Sistema automatizatuak**

1. Toki-erakunde batek administrazio-prozedura bateko administrazio-jarduketara automatizatuak erabat baliabide elektronikoen bitartez egiten baldin baditu, eta enplegatu publikoak zuzenean esku hartzen ez badu, baliabide elektronikoen diseinuak bermatuko du interesdunak hizkuntza ofiziala aukeratu ahal izatea.

2. Administrazio-jarduerara automatizatutako sistemak diseinatzen direnean, euskara izango da erantzuna emateko lehen hizkuntza; gaztelania, bigarrena; eta gero, gainerako hizkuntzak, halakorik balego.

32. artikulua.– **Publizitate aktiboa eta udal-informazioa jasotzeko eskubidea**

1. Toki-erakundeek eta haien mendeko entitateek beren gardentasun-atarietan edo web-guneetan era iraunkorrean legez argitaratu behar duten informazio publikoa

dokumentuen jatorrizko hizkuntza-bertsioetan emango da. Toki-erakundeek euskararen normalizazioa bultzatuko dute publizitate aktiboan.

2. Aitortzen da informazio publikoa udalerriek sortutako jatorrizko dokumentuen hizkuntza-bertsio autentikoetan jasotzeko eskubidea.

33. artikulua.– **Dibulgazio- eta informazio-argitalpenak**

1. Informazio- eta dibulgazio-liburuxkak, kartelak eta oharrak (dauden euskarrietan daudela) eta, oro har, Euskadiko toki-erakundeen argitalpenak, behintzat, euskaraz idatzi edo igorriko dira, baldin eta euskararen erabilera sustatzeari eta normalizatzeari lotuta badaude, eta toki-erakundeak ezarri dituen hizkuntza-normalizaziorako helburuak ere kontuan hartuta.

2. Toki-erakundeen aldizkako argitalpenen erabilera-hizkuntza euskara izan ahalko da, normaltasunez.

3. Toki-erakundeek idatzizko, irratiko edo telebistako komunikabideen bitartez sustatzen duten publizitate instituzionala, behintzat, euskaraz idatzi edo igorriko da, toki-erakundeak ezarri dituen hizkuntza-normalizaziorako helburuen arabera, eta xedea zein den.

4. Toki-erakundeen kanpoko promozioari lotutako publizitatea dagokion helburua betetzeko egokia den hizkuntzan egingo da, hizkuntza ez-ofizialak ere barne hartuta.

5. Dibulgazio- edo informazio-komunikazioetan zer hizkuntza erabili erabakitzen denean, kontuan hartuko da hartzaileek hizkuntza biak zenbateraino menderatzen dituzten.

34. artikulua.– **Eskritura publikoak**

Euskadiko toki-erakundeek eskritura publikoak euskaraz idaztea bultzatuko dute.

35. artikulua.– **Jabari publikoaren erabilera komun berezia eta pribatiboa**

1. Euskadiko toki-erakundeek jabari publikoko hizkuntza-argazkian euskararen erabilera normalizatzea sustatuko dute. Horretarako, jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko tituluetan klausula egokiak txertatuko dira kontsumitzaileei eta erabiltzaileei ematen zaizkien informazioa eta segurtasun-abisuak euskaraz idatz edo igor daitezzen.

2. Toki-erakunde bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeari buruz ezarri dituen irizpideekin bat etorrira, udal-azpiegituretako jardun publikoan zein pribatuan orokorrean eta normaltasunez erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara izan ahalko da, eta euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunari buruzko araudia beti bermatuko da.

3. atala.– *Administrazio-kontratazioa eta lankidetzak-hitzarmenak*

36. artikulua.– Kontratu publikoak

1. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, herritarrei bermatze aldera kontratu bidezko zerbitzuak eta jarduerak, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari eskatu ahal zaizkion baldintza beretan ematea eta euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasun bikoitzaren arauketa ere betetzea.

2. Administrazio-baldintza partikularrei eta baldintza teknikoei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, salbu eta grafikoak edo guztiz teknikoak diren dokumentuak direnean, horiek hizkuntza ofizialetako batean argitaratu ahalko baitira.

3. Euskadiko toki-erakundeek hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko dute kontratu publikoetan. Horren ondorioz, kasu bakoitzean, kontratuaren xedea zein den, administrazio-klausula partikularrei buruzko agirietan eta baldintza teknikoei buruzko agirietan ezarriko dituzte kontratuan edo kontratua arautzen duten dokumentuetan bete behar diren hizkuntza-eskakizunak.

4. Toki-erakundeek bermatuko dute kontratuaren xedek betetzea bere izaerarengatik eta zerbitzuaren titularrak den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

5. Hizkuntza bien ofizialtasunari lotutako eskakizunak kontratu bakoitzaren betearazpen-baldintzei lotuta egongo dira. Gainera, hauxe bermatu beharko dute:

a) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.

b) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.

6. Honako printzipio hauek oinarritzat hartuko dira kontratua betearazteko hizkuntza-baldintzak zehaztean:

a) Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

b) Kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotuta egongo dira.

c) Enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez ziurtatu ahalko ditu.

7. Zerbitzuak kontratatzen direnean, eta, bereziki, jendaurrean eman behar diren zerbitzuetan edo herritarrekin zuzeneko harremana eskatzen dutenetan, hauxe bermatu beharko da:

a) Enpresa esleipendunak toki-erakundearen hizkuntza-araudia bete beharko du zerbitzuan, hizkuntza-jardunari dagokionez. Hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak bereziki hautatuko ditu, enpresako lanpostuak betetzeko. Enpresak eskakizun hori baldintza teknikoei buruzko agirietan edo kontratuan adierazi beharko du.

Enpresak langile horiek kontratatu ahal dituela egiaztatze aldera, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak identifikatu beharko ditu lanpostuak betetzeko proposatzen dituen langileak, hizkuntza-gaitasunaren mailak ere zehaztuta, eta, hala dagokionean, behar diren egiaztagiria erantsita.

b) Zerbitzua ematen duenean, esleipenduna saiatuko da herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa esleipenduneko langileak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Zerbitzuaren erabiltzaileak zer hizkuntza aukeratu duen, hizkuntza horretan idatziko ditu enpresa esleipendunak zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta beste idazki batzuk.

c) Hizkuntza-eskakizunak betetzeko behar den jarraipena kontratazio-organoari dagokio. Hizkuntza-eskakizunak behin eta berriro urratzen badira, kontratua suntsiaraztea ekar lezake.

8. Euskadiko toki-erakundeek erabaki ahalko dute hirugarrenei eskatzen dizkieten azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz, behintzat, aurkezteko, salbu eta, xedea dela eta, gaztelaniaz idatzi behar direnean. Eskakizun horrek jasota egon beharko du onartzen diren administrazio-kontratuen baldintza-agirietan.

37. artikulua.– **Hitzarmenak**

1. Udalerriek beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahalko dituzte, euskararen ikasketak eta erabilera bultzatzeko.

2. Toki-erakundeek pertsona fisiko eta juridikoeekin sinatzen dituzten hitzarmenak, behintzat, euskaraz idatziko dira.

4. atala.– Sustapen-lana

38. artikulua.– Diru-laguntzak

1. Toki-erakundeek beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeaz gain, erabilera ere dinamizatuko dute, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz edota beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko egiten dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

2. Toki-erakundeek hizkuntza ofizialen erabilera arautuko dute sustapen-jardueran. Zehazki, diru-laguntzari lotutako jardueran hizkuntzen erabilera garrantzitsua den bakoitzean, euskara sustatzeko irizpideak aplikatuko dituzte, Euskadiko Toki Erakundeen Legean ezarrita dauden hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraikiz, eta, oro har, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan jasotako oinarrizko araudiari lotutako alderdiak kontuan hartuta.

3. Hizkuntza-irizpideak diruz lagundutako jarduera gauzatzean aplikatuko ditu onuradunak, eta honako printzipio hauek bete beharko ditu:

a) Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, diruz lagundu den jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

b) Diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

c) Onuradunak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez ziurtatu ahalko ditu.

4. Diruz laguntzeko jarduerak zenbait herritarrekiko zuzeneko harremana izatea berekin ekartzen baldin badu, euskararen erabilera normala bermatuko da; hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzea. Era berean, diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari.

IV. KAPITULUA ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK

39. artikulua.– Jatorrizko dokumentuak euskaraz idaztea

1. Euskaraz sortutako dokumentuak eta dokumentuon kopiak euskaraz bideratuko dira, toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako beste administrazio publiko batzuei bidali behar dizkietenean, edo euskara hizkuntza ofizial gisa duten lurraldeetan daudenei edo euskarak ondore juridikoak dituen gainerako eremuetan kokatuta daudenei.

2. Era berean, ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idazten direnean, kopiak edo laburpenak euskaraz bidaliko zaizkio EAEko administrazioari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen Estatuko Administrazioari ere, toki-araubideari buruzko oinarritzko legeria betez.

3. Udal-dokumentuak eta dokumentuon kopiak euskaraz egiten direnean, gaztelaniaz bidaliko dizkiete artikuluko honetako lehen apartatutan jasota ez dauden gainerako administrazio publikoei, euskarazko jatorrizko testuarekin batera. Halaber, jakinaraziko zaie jatorrizko testua euskarazkoa dela, eta testu horretatik itzuli dela.

4. Euskara-unitate gisa eratu diren zerbitzuek idatzizko harremanak izaten dituztenean Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden administrazio publikoekin, euskaraz jardungo dute.

40. artikulua.– **Euskararen erabilera sustatzea harreman instituzionaletan**

1. Toki-erakundeek euskararen erabilera gero eta handiagoa izatea sustatuko dute elkarren arteko harremanetan, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden gainerako administrazio publikoekiko harremanetan eta euskara hizkuntza ofizial gisa duten lurraldeetan dauden edo euskarak ondore juridikoak dituen gainerako eremuetan kokatuta dauden administrazio publikoekiko harremanetan.

2. Administrazio publikoek adierazi badute toki-erakundeekiko harremanak euskaraz eduki nahi dituztela, toki-erakundeek euskaraz bidaliko dizkiete dokumentuak eta kopiak.

3. Euskaraz idatzitako testu edo errekerimendu bati erantzun behar zaionean, euskaraz erantzungo zaio.

4. Estatuko Administrazio Zibil eta Militarrari eta Justizia Administrazioari euskarazko dokumentuak eta jakinarazpenak euskararen ofizialtasunaren aplikazio-eremuan bidaltzen zaizkienean, gaztelaniaz idatzitakoek bezalako ondore juridikoak izango dituzte.

41. artikulua.– **Komunikazio instituzionala**

1. Toki-erakundeek esku-hartze publikoetan euskararen erabilera sustatu eta bultzatuko dute, komunikazio instituzionalean euskararen erabilera normalizatua ohikoa izan dadin.
2. Toki-erakundeen arteko komunikazio instituzionalean egintza publikoak eta komunikabideen aurreko agerraldiak egin behar direnean, behintzat, euskaraz egingo dira. Halaber, lehentasuna emango zaio euskarari, toki-erakunde bakoitzak hartzaileen ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta ezarri dituen irizpideekin bat etorrira.

V. KAPITULUA

UDAL-TOPONIMIA. BIDEETAKO ETA ZERBITZUETAKO SEINALEAK

42. artikulua.– **Eskumena**

1. Udalerriei dagokie beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen prozedura arautzea eta haiek onartzea, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.
2. Toki-erakundeen izena aldatzeko prozedura dagokion foru-araudiaren arabera izango da.
3. Toki-erakundeek toponimo ofizialak behar bezala erabiltzen direla zainduko dute.
4. Toki-erakundeek beren lurralde-eremuko toponimia sustatzeko, ikertzeko eta hedatzeko laguntza eta sustapena emango dituzte.

43. artikulua.– **Printzipio gidariak**

Hizkuntza-alderdiei dagokienez, hauexek izango dira toki-erakundeen izen ofiziala, izenen aldaketa eta udalerrien lurralde-eremuko eta eskumeneko gainerako toponimoak eta leku geografikoen zehaztapena gidatzeko printzipioak:

1. Edonola ere, toponimoak eta leku geografikoak izendatzeko, euskarazko, hizkuntza erromantzeko eta gaztelaniazko jatorrizko izenak errespetatuko dira, eta hizkuntza bakoitzari dagokion grafia akademikoa erabilita. Lehentasuna emango zaie tokiko izen tradizionalei eta historikotasunari.
2. Unibokotasun-printzipioa edo izen geografiko bakoitzaren «idatzizko forma bakarra» bermatuko da. Dena den, baliteke toponimo batzuen izendapen bikoitzak egitea: izen bat, hizkuntza batean; eta beste izen bat, beste hizkuntza batean.
3. Argitasun- eta zehaztasun-printzipioa bermatuko da, entitate geografikoen izendapenak zalantzarik gabeak izan daitezen.

4. Toponimoak ofizialtzeko prozesuan antolaketa gidariaren printzipioa bermatuko da, maila handiagoko lurralde-eremuko administrazioen interesei eragiten zaienean; bai eta administrazio-koordinazioaren printzipioa ere.
5. Izen geografiko ofizial baten ortografia-zuzenketa soila, izenaren forma aldatzerik berekin ekartzen ez badu, ez da hartuko toponimo ofizialaren aldaketatzat; hortaz, prozedura laburtuaren mende egongo da. Ortografia-zuzenketa soiltzat hartuko da toponimoari dagokion hizkuntzaren grafia akademikora egokitzea, aipatutako egokitzeak toponimoaren ahoskerari eragiten dioten kasuak barne hartuta.
6. Izen geografiko ofizial baten itzulpena ere ez da hartuko toponimoaren aldaketatzat, Euskaltzaindiak itzulpen hori zuzentzat jo baldin badu; hortaz, prozedura laburtuaren mende egongo da.
7. Toponimoen forma, grafia eta zeinu grafikoen (marratxoa, barra zeiharra eta bestelakoak) ezarpena Euskaltzaindiak gai horri buruz emandako arau eta irizpideetara egokituko da.
8. Leku geografiko batek bi izen —bata, euskaraz; eta besteak, gaztelaniaz— baldin baditu, hauxe bete beharko da:
 - a) Biak idatziko dira, barra batez bereizita. Barraren alde bietan zuriune bat utziko da; eta euskarazko izena aipatutako barraren ezkerrean idatziko da.
 - b) Komunikazioa euskarazko testu korritu baten bidez egiten denean, hizkuntza horri dagokion izena baino ez da erabili beharko. Gaztelaniaz idatzitako testuetan izen biak jasoko dira.
9. Leku geografiko bati dagokion lurzoruak honako hauek ukitzen dituztenak:
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoa eta beste autonomia-erkidego bat: Euskal Autonomia Erkidegoak izen ofizialtzat hartutako izenari eutsiko dio. Eusko Jaurlaritzak ukitutako autonomia-erkidegoarekiko lankidetzaren bultzatutako du, izendapen bikoitzak erabiltzea sustatzen duten akordioak bilatze aldera.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko bi udalerrri edo bi lurralde historiko, edo gehiago: izen bera eta bakarra erabiliko da.
10. Lehentasuna eman beharko zaio genero-ikuspegiari, eta Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Berriazko Batzordeak onartzen dituen irizpideak erabiliko dira. Gainera, irizpide horiek ahalik eta gehien hedatuko dira.
11. Toponimoak ez dira beste hizkuntza ofizialera itzuliko, dokumentazioan hori egin ohi dela jasota egon ezean. Toponimoarekin batera, azalpen moduan, generiko estandarra ere jasota baldin badago, lehentasuna emango zaio generiko horren

euskarazko bertsioari; hargatik eragotzi gabe beste hizkuntza ofizialera ere itzuli ahal izatea.

12. Leku geografiko zehatzen izen berriak ofizialdu behar direnean, honako arau hauek beteko dira:

- a) Lehentasuna emango zaie euskarazko izenei, gaztelaniazko izenen aldean.
- b) Aztertu ondoren, aurkitzen baldin bada lekuan bertan edo ingurunean izena zehazteko baliatu ahal diren toponimoak daudela, beste irizpide erabilgarri batzuei baino lehentasun handiagoa emango zaie toponimo horiei.
- c) Toponimoak izen bereziak baldin badira, lehentasuna emango zaie emakumezko izenei.
- d) Administrazio eskudunak Euskaltzaindiaren irizpena eskatu ondoren egingo du bere proposamena.
- e) Artificio handiko izenak, izen exotikoak edo merkataritzari lotuak baztertuko dira, eta atzerriko hizkuntzetan daudenak ere bai.

44. artikulua.– **Prozeduraren oinarrizko arauak**

1. Toki-erakundeen izena aldatzeko prozedura arautuko du foru-araudian jasotakoak. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak, tokiko administrazioaren arloko eskumena duen sailak proposatuta, udalerriei proposatu ahalko die izena zuzentzeko, baldin eta hizkuntza-akatsak badaude, edo toponimia tradizionalaren araberakoak ez badira.
2. Toki-erakundeen lurralde-eremuko eta eskumeneko gainerako toponimoak zehazteko eta aldatzeko, prozeduraren oinarrizko arauak beteko dira:
 - a) Prozedurari ekiteko, udalbatzaren edo dagokion organo gorenaren osoko bilkuraren aldeko erabakia jaso beharko da.
 - b) Espedientea jendaurrean jartzeko epea ez da 30 egunekoa baino txikiagoa izango; eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean jarriko dira iragarkiak.
 - c) Euskaltzaindiaren txostena jaso behar da.
 - d) Udalbatzaren edo dagokion organo gorenaren osoko bilkuraren aldeko erabakia jaso beharko da.
 - e) Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari espedientea bidali beharko zaio, onar dezan. Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak hiru hilabeteko epean aurkako txostenik ematen ez badu, udal-erabakia behin betikotzat joko da, eta betearaziko da. Izen ofizialen arteko desadostasunak egonez gero, Eusko Jaurlaritzak dekretu

bidez hartuko du erabakia, Euskaltzaindiak idatzitako txostena kontuan hartu ondoren.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko izen geografiko ofizialen izendegian izena inskribatzea, eta Estatuako Administrazioari horren berri ematea, Estatuaren izendegi geografikoan ere sar dezan, bai eta nazioarteko erregistroetan eta instantzietan ere jasota egon dadin.

3. Arauaren 43. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan prozedura sinplifikatuari jarraituko zaio. Honako izapide hauek egin beharko dira: hasierako onarpena jasotzea, informazioa jendurrean jartzea, behin betiko onarpena jasotzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegian sartzea.

4. Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko toponimoak onartzeko eta ofizialtzeko, honako izapide hauek egin beharko dira:

a) Proposamen idatzia eta arrazoitua egin ondoren, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak bere eskumeneko toponimoak ezabatzeko, zuzentzeko, onartzeko edo ofizialtzeko prozedurari ekingo dio, ofizioz edo alderdi batek eskatuta.

b) Dagokien toki-erakundeei entzunaldia emango zaie, proposamenari buruzko adierazpenak egin ditzaten (proposamenarekin batera, espedientean dauden aurrekari eta dokumentu guztiak ere aurkeztuko dira). Entzunaldia eta jendurreko informazio-epea 30 egunekoa izango da. Iragarkiak *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* eta ukitutako lurralde historikoko edo lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan argitaratuko dira.

c) Informazioa jendurrean jarri osteko emaitza jasotakoan, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Berariazko Batzordeari eskatu ahalko dio irizpena, baina irizpena ez da loteslea izango. Batzordeak bi hilabeteko epea edukiko du, irizpena igortzeko, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita. Epe hori iraungita, aurrera jarraituko du prozedurak.

d) Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak espedientearen kopia autentifikatua bidaliko dio Euskaltzaindiari, Euskaltzaindiak nahitaezko irizpena eman dezan. Irizpen hori ez da loteslea izango, eta akademiak irizpena egiteko bi hilabeteko epea izango du, eskatzen zaionetik zenbatzen hasita. Epe hori iraungita, aurrera jarraituko du prozedurak.

e) Behin espedientea amaituta, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen saileko sailburuak ebazpena eman, eta toponimoa ofizialtzat joko du. Horrez gain, ebazpenean aginduko du toponimoa Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegian inskribatzeko eta

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta lurralde historikoko edo lurralde historikoetako aldizkarietan informazioa argitaratzeko. Halaber, Estatuko Administrazioari era formalean jakinaraziko dio, toponimoa estatu-izendegi geografikoan eta nazioarteko erregistroetan eta instantzietan sar dadin.

45. artikulua.– **Izen geografiko ofizialen izendegia**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegia sortu da. Erregistro publikoa da, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailera atxikita, eta bertan inskribatuko dira Euskadiko toponimo ofizialak.
2. Arau honetan ezarritako prozedurei jarraikiz ofizialtzen diren toponimoak Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegian sartuko dira, bai eta dagokion foru-araudia aplikatuta ofizialtzen direnak ere.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegian txertatzen diren idatzohar eta idazpenek, gutxienez, honako datu hauek bildu beharko dituzte:
 - a) Idazpenaren zenbakia, kodea eta identifikazioa.
 - b) Toponimo ofizialaren izena. Forma labur bat edukiko du; elementu generikorik gabeko izen berezi bat izango da—salbu eta elementu hori izen bereziaren parte den kasuetan—. Horrez gain, elementu hedatu bat edukiko du; azken forma horrek izen berezia eta hari dagokion generikoa jasoko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.
 - c) Toponimoaren alonimoak.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoaren 1: 5.000 eskalako kartografia edo ortoargazki ofizialean eta erreferentziako sistema geodesiko ofizialean udalerria eta kokapen geografikoa zehaztuko dira, dagokion entitate geografikoa hobekien erakusten duen geoerreferentziazio poligonalaren, linealaren edo puntualaren bitartez.
 - e) Toponimoa noiz ofizialdu zen eta dagokion aldizkari ofizialean noiz argitaratu zen jakinarazteko eguna eta erreferentzia zehatzak.
 - f) Toponimoak izendatzen duen lekua udal-mugarte batean, lurralde historiko batean edo autonomia-erkidego batean baino gehiagotan badago, gertaera hori adieraziko da, eta zein diren zehaztuko da. Gainera, gorabehera horren eraginez biltzen diren izendapen guztiak jaso beharko dira.
 - g) Ofizialtze-espedientearen signatura, eta haren artxiboaren kokapen zehatza.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegia ataletan egituratu ahal izango da, eta izendegiaren datu aipagarrienak eskuragarri egongo dira Internet bidez.

46. artikulua.– **Seinaleak eta errotuluak jartzea**

1. Toki-erakundeen mendeko errepideen, bideen, auzoen, zubien, tunelen, autobus-geltokien eta interes publikoko zerbitzuen seinaleak eta toki-erakundeek emakida bitartez kudeatzen dituzten zerbitzuak euskaraz, behintzat, idatziko dira. Horrez gain, hala dagokionean, errotuluak gaztelaniaz ere jarriko dira, bide-trafikoari eta -segurtasunari buruzko araudiarekin bat etorrita.
2. Euskarazko mezua erraz ulertzen denean, toki-erakundeek euskara hutsez jarri ahalko dituzte seinaleak eta errotuluak.
3. Euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baldin badira, lehenengo bertsioak euskarazkoa izan beharko du.

VI. KAPITULUA

PLANEN ETA PROIEKTUEN HIZKUNTZA-INPAKTUA EBALUATZEA

1. atala. Arau orokorrak eta gomendioak

47. artikulua.– **Ebaluazioaren helburuak eta printzipioak**

1. Udalerrien egoera soziolinguistikoan eragin dezaketen proiektuak edota planak onartzeko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen inpaktua ebaluatuko da. Gero, ebaluazio horren ondoriozko neurriak proposatuko dira, kapitulu honetan jasotako baldintzen arabera, egoki irizten bazaie.
2. Honako hauek dira hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren helburuak:
 - a) Udalerrien egoeran eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko, ezartzeko, onartzeko eta baimentzeko prozeduretan hizkuntza-alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea.
 - b) Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.
 - c) Neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

3. Honako printzipio hauek izango dira hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren oinarriak:

a) Prebentzioa: Euskadiko toki-erakundeek, hizkuntza-ikuspegitik ere, aukera onenak baliatuko dituzte, planak onartu edo proiektuak baimentzen dituztenean, inpaktu kaltegarriak ahalik eta txikienak izan daitezen, edo, hala dagokionean, inpaktu horiek konpentsatzeko.

b) Onarpena emateko prozedura substantiboan txertatzea. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-prozedura hasieratik sartuko da plana edo proiektua onartzeko prozedura substantiboan; eta ebaluazioa amaituko da plana edo proiektua behin betiko onartu aurretik. Horrela, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren emaitzak planetan edota proiektuetan txertatu ahal izango dira.

c) Ebaluazioaren kalitate teknikoa.

d) Interesdunen eta, oro har, publiko orokorraren parte-hartzea.

- Honako hauek jotzen dira interesduntzat: pertsona fisikoak eta juridikoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat; irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, aplikagarria den araudiaren arabera eratuta, baldin eta haien estatutuetan ziurtatu dituzten xedeen artean euskararen erabileraren sustapena edo defentsa orokorra ezarrita badago; eta baldin eta pertsona juridiko horien estatutuen araberako jarduera ebaluazioaren xedea den planaren edo proiektuak eragindako lurralde-eremu batean egiten bada.

- Publiko orokortzat hartzen da edozein pertsona fisiko edo juridiko eta elkarte edo talde, aplikagarria den araudiaren arabera osatuta, baldin eta pertsona interesduntzat jotzeko betekizunak biltzen ez badituzte.

e) Prebentzio- edo konpentsazio-neurriak hizkuntza-inpaktura egokitzea eta hizkuntza-inpaktuaren eta inpaktua minimizatzeko baliabideen arteko proportzionaltasuna zaintzea.

f) Konfidentzialtasuna; bereziki, sustatzaileek ematen dituzten datuei dagokienez.

g) Gardentasuna; zehazki, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egitea exijituko da.

h) Euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea, politika publikoetan hizkuntza-ikuspegia sartuz.

i) Udalerrien garapen soziala bultzatzea, hizkuntza-eredu iraunkorra sustatuz.

48. artikulua.– **Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak**

1. Dekretu honen I. eranskinean jasota dauden planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktua ebaluatu beharko da, eta haien funtsezko aldaketak ere bai, halakorik balego. Hona hemen gerta daitezkeen aldaketak:
 - a) Udalerriko biztanlerian aldaketak eragitea.
 - b) Udalerria bisitatzen duten pertsonen kopurua aldatzea.
 - c) Udalerrian egiten den hizkuntza-politika aldatzea.
 - d) Udalerriko hizkuntza-erkidegoaren harreman-sareak aldatzea.
2. Era berean, udalerriek beste plan edo proiektu batzuen hizkuntza-inpaktua ebaluatu ahalko dute, nahiz eta arau honetako I. eranskinean proiektu edo plan horiek jasota ez egon. Edonola ere, sustatzaileak eskatu beharko du, planek eta proiektuek udalerraren egoera soziolinguistikoan eragiteko ahalmena dutenean.
3. Udalerriaz gaindiko eremuko proiektuek edo planek udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan ahal badute, bermatu egingo da ukitutako udalerrri bakoitzean hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar duen udal-organoak planok eta proiektuok onartzeko prozeduran parte hartzea.

49. artikulua.– **Ebaluazioa salbuesteko kasuak**

1. Honako kasu hauetan ez da egin behar hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa:
 - a) Funtsezkoak ez diren planen eta proiektuen aldaketak badira.
 - b) Onartutako planek eta proiektuek hizkuntza-inpakturik eragiten ez badute.
2. Aurreko apartatuan ezarritako kasuetan, sustatzaileak erantzukizunpeko adierazpena eginez justifikatuko du ebaluazioa ez egitea. Adierazpen hori hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoari bidaliko dio, eta proiektuaren edo planaren kopia ere erantsiko dio, baldin eta aurrez udal-bulegoetan aurkeztu ez badute. Horrek guztiak bat etorri beharko du arau honen II. eranskinean jasotakoarekin.

3. Plana edo proiektua onartzeko prozeduraren izapideek aurrera jarraituko dute, eta sustatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta hurrengo 20 egunetan hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak plana edo proiektua berrikusi ahalko du. Berrikuspen horren ondorioz ikusten badu ebaluazioa ez egitea ez dagoela arau honen arabera justifikatuta, sustatzaileari eskatu ahalko dio dagokion hizkuntza-azterlana egiteko.

50. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenaren edo komunikazioaren mendeko proiektuak

Erantzukizunpeko adierazpena edo komunikazioa —Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarrita— behar duten eta arau honen aplikazio-eremuan dauden proiektuak direnean, erantzukizunpeko adierazpena edo komunikazioa ezin izango da aurkeztu hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak ebaluazioa amaitu arte.

51. artikulua.– Hizkuntza-ebaluazio estrategikoaren eta hizkuntza-ebaluazioaren arteko erlazioa

Plan baten hizkuntza-ebaluazio estrategikoa egiten bada, ez da egin beharko plan horretatik datozen proiektuen hizkuntza-ebaluazioa, baldin eta planaren ebaluazioan jada aztertu bada proiektu horien hizkuntza-inpaktua.

2. atala. Prozedura

52. artikulua.– Prozeduraren faseak

1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioan izapide hauek egin behar dira:
 - a) Hasiera-eskaera.
 - b) Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea.
 - c) Hizkuntza-azterlana egitea.
 - d) Informazioa jendaurrean jartzea eta pertsona interesdunei kontsulta egitea.
 - e) Espedientea aztertzea.
 - f) Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egitea.
2. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egiteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da. Eta, plana edo proiektua onartzeko prozedura amaitu aurretik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena prozedurari erantsi beharko zaio beti.

3. Plana edo proiektua onartzeko organo substantibo eskuduna planaren edo proiektuaren sustatzailea ere bada, organo substantiboak bete beharko ditu arau honen bidez sustatzaileari agintzen zaizkion betebeharrak.

53. artikulua.– **Hasiera**

1. Plana edo proiektua ezartzeko edo onartzeko prozedura substantiboan sustatzaileak organo substantiboan hizkuntza-ebaluazioa hasteko eskabidea aurkeztu beharko du, legeria sektorialak eskatutako dokumentuekin batera. Horrez gain, hasierako dokumentu bat ere aurkeztu beharko du, eta dokumentu horretan honako datu hauek, behintzat, bildu beharko ditu, III. eranskinean zehaztutako baldintzen arabera:
 - a) Planaren edota proiektuaren azalpena.
 - b) Udalerriko biztanlerian espero diren aldaketak.
 - c) Udalerria bisitatzen duten pertsonen kopuruan espero diren aldaketak.
 - d) Udalerrian egiten den hizkuntza-politikan espero diren aldaketak.
 - e) Udalerriko hizkuntza-erkidegoaren harreman-sarean espero diren aldaketak.
2. Era berean, sustatzaileak memoria-txosten bat aurkeztu beharko du. Honako datu hauek bildu beharko ditu:
 - a) Udalerriari edo planaren zein proiektuaren eragin-eremuari buruzko demografia-datuak.
 - b) Zer ekipamendu edo azpiegitura dauden.
 - c) Hizkuntza-adierazleak.
 - d) Udalerrian euskarari lotuta jada dauden tresnak edo erakundeak.
 - e) Datu sozioekonomikoak.
3. Organo substantiboak egiaztatzen baldin badu hasiera-eskabidean aurreko ataletan zehaztutako informazioa falta dela, sustatzaileari hamar egun baliouduneko epea emango dio datu horiek eman ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako ondoreekin.
4. Aipatu den informazio hori zuzena dela egiaztatu eta gero, organo substantiboak hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoari bidaliko dio dokumentazioa.

54. artikulua.– **Irismeneko dokumentua**

1. Sustatzaileak hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoari eskatu ahalko dio hizkuntza-azterlanaren irismenaren gaineko dokumentu bat egiteko.

2. Horretarako, sustatzaileak hizkuntza-azterlanaren irismena zehazteko eskaera bat aurkeztuko du, plan edo proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Bertan, honako datu hauek, behintzat, jasoko dira:
 - a) Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena.
 - b) Jorratu diren aukerak eta aukera bakoitzak eragin ditzakeen hizkuntza-inpaktuaren gaineko azterketa.
 - c) Proiektuak eragiten dion ingurunearen diagnostia, lurralde- eta hizkuntza-ikuspegietatik.
3. Hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena egite aldera, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak pertsona interesdunei kontsulta egin ahalko die.
4. Hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena sustatzaileari eta organo substantiboari bidaliko zaie.

55. artikulua.– **Hizkuntza-azterketa egitea**

1. Sustatzaileak hizkuntza-azterlana egingo du, eta honako alderdi hauek, behintzat, aztertuko ditu:
 - a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspenak.
 - b) Biztanleriaren edo bisitariaren kopurua handitzea espero den kasuetan bilakaera-indizearen kalkulua egin beharko da; zehazki, IV. eranskinean jasotako baldintzetan.
 - c) Hizkuntza-inpaktuaren indarraren kalkulua, V. eranskinean garatu diren baldintzetan. Inpaktuaren indarra kalkulatzeko, honako aldagai hauek kontuan hartuko dira:
 - Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
 - Biztanleen edo bisitarien gaitasuna hizkuntza menderatzeko.
 - Biztanleriaren edo bisitarien hizkuntza-erabilera.
 - Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
 - Eragin-zonaren hizkuntza-argazkia.
 - Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.
 - d) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa, VI. eranskinean garatzen diren baldintzetan. Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:

- Plana edo proiektu motaren ezaugarriak buruzkoak.
 - Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.
 - Kokapenari buruzkoak.
 - Planeatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.
 - Konpentsazio-neurriak.
- e) Neurri zuzentzaileak, VII. eranskinean ezarritako baldintzetan.
2. Administrazioak sustatzailearen eskura utziko ditu berak dituen txostenak edo edozein datu, baldin eta hizkuntza-inpaktua aztertzeko erabilgarriak badira.
3. Behin aurreko alderdiak aztertuta, sustatzaileak Hizkuntza Inpaktuari buruzko Txostena aurkeztuko du. Bost atal hauek edukiko ditu:
- a) Sarrera, dokumentuaren edukia azaltzeko.
 - b) Planaren edota proiektuaren azalpena.
 - c) Egin den ebaluazio-prozedura.
 - d) Detektatu den hizkuntza-inpaktua.
 - e) Ondorioak.

56. artikulua.– **Informazioa jendaurrean jartzea eta pertsona interesdunei kontsulta egitea**

1. Plana edo proiektua onartzeko prozedura substantiboa jendaurrean jartzen den aldi berean, hizkuntza-inpaktuaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidea ere egingo da.
2. Publikoari informatzeko izapidea egiten den bitartean, organo substantiboak kontsultak egingo dizkie Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumenak dituen sailari eta pertsona interesdunei. Kontsultak jakinarazpen bidez egingo dira. Honako datu hauek, behintzat, bildu beharko dira:
- a) Hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, edo non kontsultatu daitekeen.
 - b) Txostenak eta ebaluazioak zer organori bidali behar zaizkion.
 - c) Planaren edo proiektuaren gaineko informazio garrantzitsua eskuratzeko modua.
3. Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumenak dituen sailak eta pertsona interesdunek hogeita hamar egun balioduneko epea edukiko dute txostenak egiteko eta alegazioak formulatzeko, eta jakinarazpena hartzen denetik zenbatzen hasiko da.

4. Organo substantiboak sustatzaileari gehienez ere hamar egun balioduneko epean bidali beharko dizkio jasotako txostenak eta alegazioak, proiektuaren bertsio berrian eta hizkuntza-inpaktuaren azterlanean kontuan har ditzaten. Epea zenbatzen hasiko da informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumenak dituen sailari eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitzen denetik aurrera.

57. artikulua.– **Espedientea aztertzea**

1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak hizkuntza-inpaktuari buruzko espedientearen azterketa teknikoa egingo du, eta proiektuaren hizkuntza-ondoreak ere ebaluatuko ditu.
2. Espedientearen analisi teknikoa egin bitartean, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak ondorioztatzen badu sustatzaileak hizkuntza-azterlana ez duela behar bezala egin, hizkuntza-azterlanari buruzko informazio osagarria behar dela edo sustatzaileak ez dituela kontuan hartu informazioa jendaurrean jartzeko izapidean jaso diren alegazioak, sustatzaileari eskatuko dio hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena osatzeko behar den ezinbesteko informazioa eman dezala. Halaber, horren berri emango dio organo substantiboari.
3. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak prozedura gauzatzan jarraituko du, baldin eta behar beste judizio-elementu baditu, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egiteko.

58. artikulua.– **Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena**

1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak, behin espedientearen azterketa teknikoa amaituta, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egingo du.
2. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena aginduzkoa da. Txosten horretan planak edo proiektuak euskararen erabileraren normalizazioan izan dezakeen eragina aztertuko da; eta, horrez gain, ebaluaziotik ondorioztatu diren neurri zuzentzaileak edota konpentsazio-neurriak ere proposatuko dira.
3. Hizkuntzaren inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenean, honako datu hauek, gutxienez, bildu dira:
 - a) Planaren edo proiektuaren organo substantiboa zehaztea eta planaren edo proiektuaren deskribapena.
 - b) Informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumenak dituen sailari eta pertsona interesdunei

- kontsultak egiteko izapideen emaitzen laburpena, bai eta horiek kontuan hartzeko moduaren azalpena ere.
- c) Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak egin duen azterketa teknikoaren laburpena.
 - d) Euskararen erabilerearen normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko liratekeen baldintzak eta neurriak, beharrezkoa denean.
 - e) Zer konpentsazio-neurri ezarri beharko den.
 - f) Jarraipen-sistema.
 - g) Jarraipen-batzorde bat sortzea, beharrezkoa denean.
4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena hamabost eguneko epean bidaliko zaio toki-erakundeari dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko; hargatik eragotzi gabe toki-erakundearen egoitza elektronikoan ere txostena argitaratzea.
5. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenaren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, proiektua baimentzen duen egintzaren aurka administrazio-bidean eta auzibidean jar daitezkeen errekurtsioak gorabehera.

VII. KAPITULUA. ERAKUNDEEN BULTZADA

59. artikulua.— *Sustapen-neurriak*

1. Toki-erakundeek euskararen erabilera bultzatu, sustatu eta bilatu behar dute lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, publizitatean, kulturean, elkarte-jardueretan, kirolean, jolas-jardueretan eta gainerako jardueretan.
2. Toki-erakundeek, beren eskumeneko eremuan, irudi publikoa eta euskararen erabilera sustatu behar dituzte. Ildo horretatik, toki-erakundeek diru-laguntzen oinarritzko araudiaren arabera zuzeneko diru-laguntzak, hobariak eta salbuespen fiskalak ezarri ahalko dituzte, hizkuntzen erabilera normalizatzeari eta sustatzeari lotutako ekitaldiak antolatzeko.

60. artikulua.— **Laguntza-zentroak**

1. Toki-erakundeek, Eusko Jaurlaritzarekin ados jarrita, euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzeko zentroak sustatuko dituzte, eta horretarako diru-laguntzak ere emango dituzte; bereziki, egoera soziolinguistikoa dela eta, beharrezkoa den lekuetan. Laguntza-zentro horiek era mankomunatuan antolatu ahalko dira, edo elkartzeko beste modu batzuk baliatu ahalko dituzte. Lurraldeko normalizazio-politikak garatzeko organo gisa jardungo dute.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren zentroetan giza baliabideak eta baliabide materialak edukiko dituzte, dagozkien eginkizunak behar bezala betetzeko.

61. artikulua.– **Plangintza-neurriak**

1. Toki-erakundeek hizkuntza-plangintza egiteko tresnak eduki behar dituzte; besteak beste, aldizkakotasuna ezarrita duten programak. Horiek egoeraren arabera helburu eta neurri egokienak ezartzen eta emaitzak ebaluatzen lagunduko diete. Plangintza-tresnak eragile eta kolektibo parte-hartzaileekin hitzartuta egin behar dira. Halaber, parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak bete behar dira.
2. Tokiko gobernuek udalbatzaren osoko bilkurari urtero eman behar diote hizkuntza-politikari buruzko jarduketan berri, bai eta arau hau garatuz eta 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren tresnen eremuan lortu diren emaitzen berri ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Aurrekontuan duen eragina

Dekretu honen aplikazioak eta garapenak ez du eraginik izango gaiaren arabera eskudunak diren sailei esleitutako gastu-kapituluen zuzkiduran. Era berean, ez du eraginik izango toki-erakundeen aurrekontuan, eta, egonez gero, beren giza baliabideen eta baliabide materialen bitartez aurre egin beharko diote.

Bigarrena: Lehenago erregistratu diren toponimoak

Dekretu hau indarrean sartu orduko, Eusko Jaurlaritzaren izendegi geografikoan erregistratuta dauden toponimoak Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Izendegian ere erregistratuta daudela joko da; hargatik eragotzi gabe araudi hau edo aplikagarria den araudia bete beharko duten ondorengo zuzenketak, aldaketak edo ordezkapenak egitea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra: Mailakako aplikazioa

Informatika-programetako, erregistro elektronikoko, publizitate aktiboko edo kontratazio publikoko hizkuntza normalizatzeko baldintza teknikoak mailaka aplikatuko dira, toki-erakundeen gaitasuna kontuan hartuta. Toki-erakundeek denboraren arabera

antolatuko dute baldintza horiek indarrean jartzea, eta, beranduenean, arau hau indarrean jarri eta hiru urte geroago indarrean egon beharko dute.

AZKEN XEDAPENAK

Bakarra: Indarrean jartzea

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko 0000aren 00(e)a

I. ERANSKINA

Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da, honako proiektu eta plan hauek egin behar direnean, baldin eta euskararen erabileraren normalizazioan eragina izango badute:

- Planak:
 - Arnasguneetan eragina izan dezaketen plan guztiak.
 - Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
 - Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
 - Sektorizatze-plana.
 - Plangintzako arau subsidiarioak.
 - Plan partzialak.
 - Hiri-antolamenduko plan bereziak.
 - Turismo-planak.
- Proiektuak:
 - Arnasguneetan eragina izan dezaketen proiektu guztiak.
 - Garraio-azpiegituren proiektuak.
 - Autobideak, autobiak, bide lasterrak eta hiriarteko errepideak eraikitzekeo proiektuak.
 - Trenbideak egiteko proiektuak.
 - Merkataritzagune handiak eraikitzekeo proiektuak.
 - Industriaguneak eta teknologiaguneak eraikitzekeo proiektuak.

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, HIZKUNTZA- INPAKTUAREN EBALUAZIOA SALBUESTEKO

_____ jauna/andrea

IFZ: _____

Helbidea: _____

_____ jauna/andrea

IFZ: _____

Jaun/andre hau ordezkatzeko duena:

IFZ: _____

Helbidea: _____

Planaren eta proiektuaren deskripzioa.

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT:

Euskadiko Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 000/2018 Dekretuaren XX. artikuluan —2018ko 0000aren 00(e)ko 000/2018 Dekretuan— eskatzen diren eskakizunak betetzen direla, jo ahal izateko ez dela beharrezkoa plan edo proiektu horren hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egitea. Zehazki, honako eskakizun hauek betetzen dira:

- a) Aipatutako planak edo proiektuak EZ du aldaketarik eragingo toki-erakundeko biztanlerian.
- b) Aipatutako planak edo proiektuak EZ du aldaketarik eragingo toki-erakundea bisitatzen duten pertsonen kopuruan.
- c) Aipatutako planak edo proiektuak EZ du aldaketarik eragingo toki-erakundeko hizkuntza-politikan.
- d) Aipatutako planak edo proiektuak EZ du aldaketarik eragingo hizkuntza-erkidegoko harreman-sareetan.

Jakitun naiz ordezkatzeko dudako pertsonak ezagutzen duela zer ondorio izango duen, baldin eta erantzukizunpeko adierazpen honetan ezinbestekoa den edozein informazio edo datu zehaztugabe ematen badu, faltsutu egiten badu, edo omititu egiten badu.

Sinadura: Jaun/andrea:

Izen-abizenak eta sinadura

_____ (e)n, 20__ ko _____ ren _____ (e)an

III. ERANSKINA

_____ jauna/andrea

IFZ: _____

Helbidea: _____

_____ jauna/andrea

IFZ: _____

Jaun/andre hau ordezkatzeko duena:

IFZ: _____

Helbidea: _____

Planaren eta proiektuaren deskripzioa.

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
1. Aipatutako planak edo proiektuak aldaketarik eragingo al du toki-erakundeko biztanlerian? (etxebizitzak eraikiko direlako, enplegua sortuko delako...)		
2. Aipatutako planak edo proiektuak aldaketarik eragingo al du toki-erakundea bisitatzen duten pertsonen kopuruan? (aisialdiko zonak egingo direlako, zerbitzu berriak sortuko direlako...)		
3. Aipatutako planak edo proiektuak aldaketarik eragingo al du toki-erakundeko hizkuntza-politikan? (eskolako hizkuntza-eredua aldatuko duelako, zerbitzua publiko/pribatu bihurtuko delako...)		
4. Aipatutako planak edo proiektuak aldaketarik eragingo al du hizkuntza-erkidegoko harreman-sareetan? (ludoteka berria irekiko delako, udal-parke bat egingo delako, haur-eskola bat irekiko delako...)		

Sinadura: Jaun/andrea:

Izen-abizenak eta sinadura

_____ (e)n, 20__ ko _____ ren _____ (e)an